

Euskal idazle medikuen hiztegi laburra

BEGOÑA SARRIONANDIA GURTUBAY*

SARRERA

Aukezten dudan lana, *Euskal idazle medikuen hiztegi laburra*, Literatura eta Medikuntzaren historialarien arteko lankidetzan oinarrituta dago, Euskal Herriko Unibertsitatean, eta hainbeste nazioarteko unibertsitatetan, ikasgai honek garrantzi handia hartu baitu. Hori dela eta, ikasgai hau erakusteko eta zabaltzeko, uste dut euskal idazle medikuak, eta, horretaz gain, medikuntz-gaiei buruz idazten dutenak aztertu eta hiztegi bat jakineraztea ezinbestekoa dela ikasgai hau finkatzeko.

Esandakoaren arabera, euskal idazleek Euskal Herriko historia eta gizarteaz ezagutzen laguntzen digute, eta gaztelaniaz Literatura eta Medikuntzari buruz egindako argitalpenak badaude ere, batez ere Sanchez Granjel Irakasleak eskaini dizkigunak, hutsune handia dago idazle euskaldunei begiratzen badiegu, ez baitago euskaraz argitaratu dutenen ikuspegi sakon bat, hau da, ekarpen guztiak biltzen dituen hiztegi bat.

Interes literarioa euskarazko Euskal Literaturaren testuinguruan kokatuta dago. Elementu honi dagokio, euskal autore klasikoaren gehiengoari erlijiosoak baitziren eta gai erlijisiosoei buruz idatzi baitzuten ere, salbuespenak daude, hau da, gai medikuak aztertzen dituztenak. Honekin esan nahi dut Euskal Literaturak, idatzizkoa gure kasuan, Euskal Historiaren beste ikuspegi bat eman zigula, eta honela, euskal idazle humanistei esker, Euskal Medikuntza eta Literaturaren lehenaldiari ekarpen interresgarri bat bezala kontsidera daiteke lan hau.

1.- IPAR EUSKAL HERRIKO LITERATURA

a) Albaitaritzako lehen euskal liburua: *Mongongo Dassançaren Laborarien abissua*

Idazle honek XVII. mendean zehar prestatu zuen albaitaritzaren dokumentu historiko bat: *Laborarien abissua* (1692an idatzita(1)).

* Euskal Herriko Unibertsitatea

(1) Liburutxo honek bi edizio izan ditu XX. mendean. Bata Baionan 1902an, bigarrena 1908an ageria, Jean Baptiste Daranatzek moldatua, RIEV aldizkarian (Urkizu, 1999: 210).

Daranatzek (1908: 585) dionez, Haranederen *Testamentu Berriaren* argitatzailletariko batek, Dassança izenekoak, albaitaritzari buruzko tratamendu batzuk eskaini zituen. Eskuizkribu hau haren adiskide jakintsu batek, Gaztanbide Doktoreak, baimena eman ziola badakigu (Lafitte, 1931: 60).

Dassançak ezagutzen zuen Jean Lièbault. Mediku honek argitaratu zuen *L'Agriculture eta Maison Rustique* (1564) izenekoa. Liburu honek laborantzaz, baratze lanez, mahasti-zaintzaz eta beste gai anitzez hitz egiten du. Beraz, Lièbault-en liburuak 1591etik 1702ra Lyonen eta Parisen hogeita hamar edizio izan zituela, haien artean Dassançak moldatu zuena (ik. Urkizu 1999). Beste aldetik, eta Urkizuk (1999: 241) esaten digunez: "... orijinalaren xehetasunak eta detaileak zabaldu egiten ditu." Hala, *Le Bouvier (Iltzaina)* izena duen lehen liburuaren 22. kapituluaren moldaketa askea dela baieztatzen da (Urkizu, 1999: 239).

Dassança, euskarazko bertsioaren antolatzailea, Ziburuko familia batekoa zen, itas-kapitain, kortsari eta apotikari edo albaitaritzara dedikatuak.

Bestetik, Jean Pierre Chabalgoity izeneko autore batek XVIII. mendean zubereraz idatzitako aldaera bat badugu (Urkizu, 1999), izenburua duen *Laborarien abisua: Eskuizkribua* dokumentua. Era berean, idien tratamenduez hitz egiten du, lexikoaren aldetik ezinbesteko garrantzia duena. Badugu albaitaritzari buruzko beste dokumentu bat, Bertrand Goyenetchek idatzitakoa, *Marichalen Liburia* (1830ean moldatua) izenpean dagoena. *Marixal* hitza ximista bezalakoa da, eta esan daiteke frantseseko mailegua dela.

b) JOANES ETXEBERRI

b.1) Bizi zehaztasunak

Joanes Etxeberri (1668-1749), Sarako dotor mirikua izenekoa, Orixek dioenez: "*Lapurdi'ko literaturan ezin-utzia da Etxeberri*". Ibon Sarasolak mediku lapurtar honen gainean Lapurtar klasikoazko hoberenatarik bat dela esan du (ik. Onaindia, 1972: 239).

Saran (Lapurdi) jaio zen, leku ospetsua euskal literaturaren historian. Paubeko jesuiten ikastetxean egin zituen bere lehen ikasketak. Badirudi Medikuntz ikasketak, doktor maila lortuz, Montpellierren amaitu zituela, eta bere jaioterrian jarri zen sendalari 1713an. Hementxe ezkondu zen Katalina Itsasgaraterekin, seme-alaba batzuk izanik, segurik zortzi bai. Bidasoako Beran (Nafarroa) jarraitu zuen bere lana 1716an. Bere ospe profesionalak Hondarribira bultzatu zuen, eta 1722an finkatzen da herri honetan. 1725ean Azkoitira jotzen du, eta han jarraitzen du bere lan osagile gisa bere heriotzararte (1749) (Urkia, 1993: 72). Bere seme Agustin Etxeberrik medikuntza karrera jarraitu zuen ere eta Motrikuko osagilea izan zen.

b..2) Euskal lanak

Bi Joanes Etxeberri ditugu Iparraldeko Euskal Literaturan, lehena, Joanes Etxeberri Ziburukoa, apaiza; eta bigarrena, hemen aztertzen

dena, Joanes Etxeberri Sarakoa, sendalaria, euskal idazle bikainak biak. Julio Urkixoren eskuzabaltasunari esker, gaur egun irakur ditzakegu, bat izan ezik, Etxeberri idatzitako lanak argitaratu gabe egon baitira luzaroan. 1907an Urkixo Jaunak argitaratu zituen Zarauzko Aita Franziskotarren komentuan aurkitutako Etxeberri Doktoarearen idatziak, beraz, 158 urte geroago (ik. Urkixo, 1907).

Etxeberriek lau idatzi bete zituen. Bizi zelarik, 1718an Baionan argitarazi zuen bere lan bakarra “*Lau-urdiri gomendiozco carta, edo guthuna*”. Mateo Roquemaurel inprimatzailea eta liburu-saltzailea. 40 orrialde.

Lan labur hau hizkuntza nazionalaren defentsa bat da, hezkuntzarako euskararen programazio baten bitartez. Lapurdiko Biltzarrari idatzitako gutun bat aurkitzen dugu, helburu hau betetzeko asmoz dirua eskeintzen baitio Etxeberriek elkarte honi. Etxeberriek ez zuen finantziarioa aurkitzen bere lana argitaratzeko, bere familia mantendu behar zuen eta bere ogibideak ez zuen nahiko diru ematen (Villasale, 1961: 7). Honi dagokio, Urkixok Etxeberriek 1716an Berako Udaltxerekin sinatutako akordioa aipatzen du: “con salario de quarenta ducados en dinero [...] y más de diez dicados para los alquileres de una casa en que a de buir con su familia.” (Sánchez Granjel, 1983: 73).

Gainera, Etxeberriek pentsatzen zuen, Axularrek bere maisuaren antzera, euskararen beheko maila haren literatur lantze eskasaren ondorioa zela (Mitxelena, 1960: 88). Etxeberriek bere *Ghutunan* baieztatzen du herri guztiek maite dituztela haien hizkuntzak eta literarioki lantzen saiatzen direla, baina, bestetik, aitzitik, euskaldunek ez dutela interesik haien hizkuntza lantzeko aipatzen du idazle lapurtarrak.

Egoera horren ondorioz, lapurtarrak lau hizkuntzetako hiztegi bat prestatu zuen ume euskaldunek latin, frantseza eta gaztelera ikas zitzaten haien lurraldetik irten gabe. Hezkuntza honen oinarria bezala euskarazko hastapenak latin ikasteko osatu zituen mediku lapurtarrak. Idatzi hau bere seme Agustinek eraman zuen Biltzarrera eskuizkribuekin batera. Agustin, medikua bere aita bezala, adibide bizirik bat zan, Etxeberriren metodoa balidatuz. Era berean, irtenbide bat eskeintzen zuen Sarako medikuak: hiztegi bat eta euskarazko zegoen metodo bat latina ikasteko betetzea. Hauxe dio Etxeberriek hiztegi honetaz, haren hitzek justifikatzen baitzuten liburu honen argitalpena:

Halakotz, bada Eskualdunen pena eta neke hau ikhususirik hasi nintzen Eskuaraz, Latinez, Frantzesez eta Espainolez hitztegi baten moldatzen; ... baldin lehenbizirik ezbanituen moldatzen Eskuarazko lehenbiziko hatsapenak Latin ikhasteko; zeren hauk baitira zeinnahi hitzkuntzaren zimenduak; zainak eta erroak. (320)

Biltzarrak ezetza eman zion lapurtar medikuari eta arrazoi politikoak edota burokratikoak zirela medio hainbat autorek ekeintzen digutena-ren arabera. Hori dela eta, Mujikak *marginazio diglosikoa* aipatzen du (Mujika, 1979: 172):

Honela, administrazioaren aldetik euskarak marjinazio diglosikoa sufritzen du, beste helburu ekonomiko eta burokratikoak daudelako.

Beraz, nahiz eta Etxeberriren asmoak ez ziren kontutan hartu, baieztatuta dago haren lanak merezimenduaz beterik zeundela, eta honekin lotuta Aita Villasantek aipatutakoa (Villasante, 1961: 102):

Gaitz hau erremediatzeko gogoz, lau hizkuntzetako hiztegi bat konposatu duela esaten du eta honetaz gainera euskarazko hastapenak latin ikasteko, eta bi obra hauek Biltzarrari aurkezten dizkio, beren merezimenduen arabera publikatu ditza. Zalantzarik gabe, doktore prestuak bere bizitza guztian eraman zuen arantza hau ariman josirik eta beronekin jaitsi zen hilobira, bere liburuak argitaraturik ikusi gabe eta bere herritarrak beren lozorro izugarritik ateratzen ikusi gabe.

Hala eta guztiz, esan dezakegu liburu honen helburuak dezberdinak direla. Etxeberri medikuaren irakaspenak *tubalismoan* jartzen ditu euskararen iturriak (2). Hona hemen Lafittek gogoratzen diguna (Lafitte, 1990: 149):

Haren arabera Tubalen arrazakoei atxiki zuten eta huranat ekarri eskuara. Beraz mintzaire ZAHARRA da eta hortako bereko errespetagarria, aspaldiko hainitz orhoitzapen begiratzen baititu bere hitzetan.

Hasteko, eskuaren izena bera nundik heldu da? Eskutik Eskuera, zer da eskuaren abilezia baizik? Lehen denboretan jestuz mintzo ziren gure arbasoak, eta gero aohartu, mihia oraino eskua baino zulagoa zela. Bainan eskuaren izena atxiki eskua delakotz gizonarentzat tresnarik aberatsena eta oro konda beharrena.

Tubalismoaren ideiez aparte utzita, ideiak fantastikoak eskeintzen dizkigu Etxeberri euskararen ezaugarri batzuk erakusten dizkigunean. Hala, eta Lafitteren hitzak kontutan hartuz, euskararen ahoskera frantseza arabiarrarekin konparatuz gero, ederkiago kontsideratzen du Sarako medikuak. Harek esaten duenez, “[] mehegi mintzatzea ez da eskuarena...” (ik. Lafitte, 1990: 150).

Beraz, Etxeberri medikuak zuhurtzia berezi bat atxemaiten dio euskarari.

Bigarren atalean Larramendik bere *Diccionario trilingüe* delakoan, XXXVI. orrialdean, aipatzen du hiztegi hau.

Lapurdi hitzari dagokio, Etxeberri *Lau-urdi* idazten digu beti. Oihenartek uste zuenez, Lapur-di, “lapur-toki”, edo Laburdi, “Lau-ur” “ur askoren lekua” baizik: lau ibaiek barruan hartzen baitute eskualde

(2) Garibaiaren ustez, Tubalek, Noeren lobak, Euskal Herria sortu zuen. Haren esanetan: “Es documento cierto, de haber poseido siempre la tierra los mismos originarios pobladores (de Tubal), sin que gentes de lenguas ajenas bastasen a introducir en ella otra lengua, que la primitiva, que sus pobladores dejaron”. Garibai E. “*Los cuarenta libros del Compendio historial de las Chronicas*” (72). Mujika, L. M^o. op. cit. liburuan aipatua (174).

hura, Bidasoa, Nive, Nivelles eta Bidouze ibaiak bertatik itzuli-mitzuli igaroz (Onaindia, 1972: 241). Bestaldetik, Piarres Lafittek gogoratzen digunez, Etxeberrikerak aztertzen du Lapurdi izena hurrengo hau esanez (Lafitte, 1990: 152):

Eta arrazoin hunen zimendua eta funtsa da, zeren baitago lau uren artean finkatua eta hedatua; jakiteko, Bidasoaren, Charakariaren, Errobiren eta Atturriren artean. Badakigu Bidasoa heldu dela Baztango inguruetan Espainako aldetik, eta bereziki Erratzuko eremuetan sartzen diren ithurrietatik, zeina, iragaiten delarik Biriaturtik Hendaiera, itsasoan sartzen baita. Bigarrena da Charakeria. Hau Sarako eta Urdazubiko eremuetan sortzen da, handik iragaiten da Senperera, gero Azkaina, eta azkenean Donijoan Ziburueta, eta han itsasoarekin bat egiten da. Hirugarrena deitzen zen da Errobi edo Nibi, zeina jausten baita Izturitik Itsasura, handik Kanbora eta Uztaritza, eta azkenean Baionara. Laugarrena deitzen da Atturri zeina heldu baita Bidachuingo aldetik. Beraz lau uren artean dagoenaz geroztikan, kanore du Lehenbiziko hatsapenean izena eman ziotela Lau-ur-di.

Bestaldetik, Etxeberri euskara bigarren mailako ikasketak egiteko oinarrizko tresnarik hobeenetariko bat bihurtzen saiatzen zen, eta honela, euskaldun gazteek ez zuketean kanpora joan beharrik bigarren mailako ikasketak egiteko, ez eta frantsez edo espainera jakin beharrik ere kultura hartzeko (ik. Mitxelena, 1960: 88; Kintana, 1972: 7). Aurreko mendean Domingo Bidegarai aita frantziskarrak, Zaldibar, Ubillos, Kardaberaz eta abar, gauza bera gertatu zitzaizkien, haien garaikideen axolagabetsuna jaso zuten, baina, Etxeberrikerak, Aita Bidegarayri gertatu zitzaion bezalaxe, ez zuen hain zoritxarrik, bere lanak kontserbatu baitziren.

Etxeberrikerak Babeleriko Dorreari buruz hitz egiten du, eta euskararen egoera marjinalaren gaineko argudioak ematen ditu baita ere, euskalkien diferentziari esker. Beraz, euskaldunek finkatu behar dituzte diferentzi hauek, eta adibide bezala Literatura hartu behar dute, konkretuki, Axular eta bere lanik ospetsuena *Guero*. Hala, *Aitzaindaria* eta *Buruzagia* deitzen dio Larramendiri, eta Etxeberrikeraren ustetan Axular izan zen “eskuaraz ederkienik argitara eman darokuna” (ik. Kintana, 1972, 8).

Sarako autorearen beste lan bat “*Eskuararen hatsapenak*” ez da hain didaktikoa. Euskara lapurtarraren apologia bat da. 1712. urtean edo lehenago idatzia dago eskuizkribuaren hasierako partean daudelako. Euskararen aldeko lan bikaina. Apologia honek bere handitasuna du, Aita Onaindiak dioen bezala (Onaindia, 1972: 242), Larra-medik gaztelaniaz eman zituen gai gehienak eman zizkigun Sarako medikuak.

Julio Urkixok, eta beronekin beste guztiek, batasun bat ematen diete beste lan guztioi eta *Laburdiri eskuararen hatsapenak* izenpean klasifikatzen du, Lapurdiko Biltzarrak aipatzen zuen izena harturik. Kintanak, ordea, bere *Joanes Etxeberrikeraren lan hautatuak* liburuaren edizioaren hitzaurrean dionez (Kintana, 1972: 9), *Eskuararen ethorkia* da liburu honen izen aproposa, Etxeberrikerak honela adierazten baitu aurkibidean:

Guzti hau dela kausa, guk geuk beste gainerako orrietan azaltzen den obraren izena ez dugu uste hala bataiatu behar denik, ESKUARAREN ETHORKIA baizik. Etxeberrik berak honela izendatzen duela dirudi bere arkibidean, lehen orrialdean azaltzen den titulua horixe baita orrialde osorako, bigarren orrialdean, aldiz, lau subtítulo jartzen duen artean. Beraz, izen hori dadukagu guk hobetzat, eta horixe da edizio honetan jarri duguna.

Kintanaren arabera *Eskuararen ethorkia* eta *Gomendiozko karta* literatur lan bakarrak dira.

Etxeberrik beste hizkuntzen nahastutasuna defenditzen du, eta euskararen lexikoa beste hizkuntzetatik datozen ustegabeko hitz-errotiak dauden arren, euskarak bere garbitasuna mantentzen du. Bestaldetik, euskara bere kultur idatziaren faltagatik eta bere aintzinako “statusa” gatik bizirik dago.

Hau dela eta, Lapurdiko doktoreak euskararen jatortasuna eta barruan itsatsirik daraman handitasuna bete-beterik goraiatu eta adierazten du. Handitasun horrek barruan duen indarretik dator, hiztunek ez baitute asko laguntzen helburu hau betetzeko asmotan. Historian zehar latzak ikusita ere, beste zenbait hizkuntza betiko suntsitu diren arren, euskarak zintzo dirau.

Azkenean, dei bat egiten dio Euskal-Herriko gazteriarri. Sarako medikuak euskaldun gazteak aholkatzen ditu. Beraz, hauek euskara ikas dezaten bultzatzen ditu gazteak, baina euskara jakituriaren zimendu bezala kontsideratuz.

Azken finean, Etxeberrik erudikzio zabal bat erakusten du lan honen zehar, Urkixok dioen arabera (Urkixo, 1907: LXV oharra; Villasante, 1961: 11):

Aún cuando no fuera por otra razón, valía la pena imprimir *Eskuararen Hatsapenak*, a causa de las versiones vascongadas que contiene de numerosos textos de las Sagradas Escrituras, y de Sócrates, Hipócrates, Platón, Aristóteles, Plauto, Polibio, Cicerón, etc...”

Escual Herri eta Escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin icasteco. Latin ikasteko metodoa. Lan hau latin ikasteko euskaraz egitiko gramatika. Hastapena garai honetako lapurtarrentzako hasiera hitzaren metatesisa da. Izen deklinabideak eta aditz konjugazioak azaltzen ditu liburu honek, galdera eta erantzunen bitartez. 1712. urtean bukatua eta bi hizkuntzatan idatzia, latinez eta euskaraz. Latinezko paradigmak euskarazkoekin batera agertzen dira. Aipatutako forma guztiak XVII. mendeko idazle lapurtarrek erabilitakoak dira. Etxeberriren ustetan ez zegoen zertan Euskal Herriatik irten beharrik edozein gai ikasteko, eta horretarako latina baliabide beharrezkoa zen.

Etxeberriren liburu honi buruz Kardaberatz aipa daiteke, autore honek haurrei euskaraz idatzi behar zaiela idatzi zuenean (ik. Auspoa, 37, *Euskeraren Barri Onak*, 74):

Ikusten deguna da: gazteak latin gramatika ikasten dutenean, naiz gaztelaniaz, naiz frantzesez, naiz euskeraz erakusten zitue-

na: ta frantzes euskaldunai gramatikako erregelak euskeraz adirazi ta erakusten diezkate. Ala, ez eskolan ta ez gramatikan, euskera beñere utzi bear ezta.

Liburu honi dagokionez, eta Kintanaren ustez, Etxeberrik euskarak latinaren gainera zituen abantailak nolabait erakusteko gogo bizia zuen, eta adibide on bat proposatzen du Kintanak (Kintana, 1972: 12):

Zertara dator bestela, latin ikasteko metodo batetan euskal “hika” sartzea, latinez horrelakorik ez badago? Horretan, nik uste, euskal aditzaren aberastasun haundiagoa erakusteko borondate bat nabari daiteke.

Mujikaren esanetan (1979:172), lan honen metodoa errealista da, hau da, Etxeberrik hitz teknikoak onartzen ditu: genitibo, konparazino, deklinazino, bokatibo, akhabantza, etab. Baina beste motatako hitzak sartzen ditu baita ere: izenordain, komunztatu, komunztadura, laburdura, juntagailu, moldadura edota bethegailuzko. Beraz, Etxeberrik sorkuntza, maila teknikoan, legezkoa zela pentsatzen zuen, beti oreka bat mantentzen baldin bada. Mujikak emaniko ondorioak dioenez, gai teknikoak azaltzerakoan Sarako medikuak orekaren eredu jarraitzen zuen.

Honetaz aparte, **hiztegi bat** lau hizkuntzatan (euskara, latina, frantseza eta gaztelania) idatzi zuen Sarako medikuak. Villasantek Aita Larramendik bere eskuetan zuela baieztatzen du (3).

Idatzi hau ez zegoen Zarautz-ko Frantziskotarren Komentuan, beste idatzien artean. Beraz, galdutzat jo daiteke. Dirudenez, Julio Urkijo liburutegian XVIII. mendeko hiztegi bat eta Dogson ingeles euskalzaleak Etxeberrirena zela uste izan zen, baina, autoreari dagokionez, Urkixo Jaunak zalantza handiak zituen (Urkixo, 1934: 605).

Baina bada puntu bat ere Xabier Kintana ados ez datorrena Urkixorekin; hau da, Etxeberriren hiztegia lau hizkuntzatan galdu delako kontua (Kintana, 1972: 10):

Lan hauetatik kanpora, ba dago beste lan bat, hots, Etxeberriren hiztegi euskara-latin-frantses-espainola. Berau luzaro eman da galdutzat, baina gaur egun, Luis Mitxelenak dione bezala, Julio Urkixok Sbarbi jaunari eroditakoa eta zorionean guganaino ongi heldua, oso posible da Etxeberrirena izatea, euskara, latin, frantses eta espaninolezkoa izateaz gainera, bai Etxeberrik eta bai Larramendik darabiltzaten hitzak baitaduzka, eta gauza jakina da nola Larramendik hartaz baliatu zela argiro aitortzen duen.

(3) Honela dio Larramendik bere Diccionario Trilingüe-ren atzin-solasean: “El Doctor Don Juan De Etxeberria (Joanes Etxeberri), natural de Sara en Labort, oy medico de la Villa de Azcoitia, muy docto, y amante de su lengua, tiene años ha compuesto un diccionario quadrlingüe de Bascuence, Castellano, Francés y Latin, que impresso pudiera servir para entender los pocos libros, que ay en Bascuence, aunque no con toda extensión. Avrá diez, o doce años, que estando de passo en Azcoitia, me lo fio por dos dias, y entresaque muchas voces del dialecto labortano, para ponerlas despues en las correspondientes del Castellano. Harto me huviera alegrado, que huviera precedido la impresion de este diccionario, para valerme del trabajo ageno, sin ofension de su autor, en quanto dixesse bien con la idea del mio”.

Hiztegia, dena dela, latinezko gramatikaz batera egin ez bazen, gutienez harekin batera presentatu zen Lapurdiko Biltzarrera 1727.ean, baina Gomendiozko kartan aipatua agertzen denez gero (1718.ean), ordurako egina egon behar zuela pentsatu behar dugu.

C) JEAN ETXEPARE

c.1) Bizi zehaztasunak

Jean Etxepare Doktorea Iparraldeko literaturan gutxi dauden idazle ezerligiosoenetariko bat dugu. Argentinan, Mar Chiquitan, jaio zen 1877an. 1883 urtean Etxepare Euskal Herrira etorri zen, haren gurasoekin, Jean Etxepare eta Graziana Bidegorri, biak frantsez euskaldunak. Lekorne-Erlanden hartzen dute bizilekutzat.

1889an Larresoro Seminarioan hasi zen ikasten Jean Etxepare, baina harek ez zuen erlijiorako joerarik, eta Aita Onandiak esaten digunez (1975: 389-390), Larresoron ikasten zebillelarik kezka batzuk sortu zitzaizkion: “Guda gogorra izan zuen onetan; alde batetik utzi ez nai otoitza eta erlijioa, ta bestetik arima barnean alako goibel ixil bat beti zirikan ari zitzaiona.”

Beraz, Etxepare garaiko laiko bakarrenetarikoa bihurtzeaz gain, agnostikoa ere bazen, eta adibidez, hona Kortazarrek esandakoa (1990: 48): “Nos encontramos ante un autor laico y laicizante. [...] Un humanista, y a la vez un espíritu científico, [...]”

Garbi dago Etxepare Doktoreak Nietzsche eta Hackel filosofoak irakurtzen zituela, eta autore hauen eragina badago haren fede eta laneetan.

1894. urtean Bordeleko Unibertsitatera jo zuen Medikuntza ikastera. Bere ikasketak bete ondoren Doktorego tesia irakurri zuen, eta euskal gai bat hautatu zuen: *Quelques remarques sur le Joueur de pelote* (1901), hau da, pelotarien gaixotasun eta arriskuei buruzko ikerketa mediko bat.(4)

Hasieran Lekornen egin zuen Etxeparek bere ogibidea, eta ondoren, Aldudera (Baigorri) jo zuen. Gerra ondoren Kanbon kokatzen da heriotzararte (1935ean).

(4) Hona hemen Lafittek esaten diguna ikerketa eder honi buruz:

“Gero joko horrek dituen hamahiru ondorio ikhertzen ditu: 1° nola besoaren harat-hunetek eskuineko sorbalda bertzelakutzen duten eta zer gibelondo heldu zaion bulhar-kaiola edo sahets-hezurreria guziari; -2° nundik erebeslariak besoa galtzen duten, aintzinerat eta airetik ezin joa baitukete; -3° zergatik pilotariari usu bizkar-hezurra doi-doi bat ezker zeihartzen zaion kanpo-alderat eskuineko sorbalda aphauduz eta xutik dagolarik gorphutza eskuineko zangoaren gainerat bermaraziz; -4° nola pilotak bulhar-gain eta beso-ginharrak hazten dituen larrupetik lodigune batzu agertzeraingokoan; -5° nola luzara sorbalda-ginharrak azkarki makurtzen diren eta pozoinak akhitzetik sortzen; -6° zer aldakuntza ederrak gerthatzen zaizkon besoari, hala edo hula, laster ala emeki higi-arau; -7° pilotarien esku-mamiko katko bereziak; -8° erhi ttipiaren makhurdura; -9° esku eskuinaren loditzea; -10° esku-bizkarrean erhi handiaren erho-buruñoa kanpo-alderat poxi bat atheratzea; -11° itzea; -12° partida denboran eskua nola den hantzen eta kasik sorhaiotzen; -13° nola pilotak hotzaren lagun esku-mandoak eta odol-gaixtoak sortzen dituen.” Lafitte, P. *Euskal Literaturaz*. Koord. Patri Urkizu, 1990, Euskal Editoreen Elkarte. Erein. Donostia, 275.

c.2) Euskal lanak

Idazle ugaria izan zela baieztatu daiteke. 1902tik aurrera hasi zen idazten *Eskualduna* astekarian. Hiriart-Urruti apaiza izan zen artekaria(5).

Halaber, kazetari gisa, *Eskualduna* aldizkarian eta *Gure Herria* hilerokoan hasi zen argitaratzen.

Hona hemen Etxepare Doktorearen lanaren zerrenda zehatz bat:

- 1.- *Quelques remarques sur le joueur de pelote* (Bordele, 1891). Cadoret. 98 orrialde.
- 2.- *Alduden gerlako orhoitmenaren aitzinetik* (Baiona, 1923). Felzter. 8 orrialde.
- 3.- *1923.ko Eskualtzaleen Biltzarra Baigorriin* (Baiona, 1923). Felzter-Laserre. 23 orrialde.
- 4.- *Eskualdun laboriaren almanaka*. Onaindiak (1975: 391) eta Lafittek datu batzuk ematen dizkiguten lan honi buruz:

Beiñola, Uztaritze'ko serora beltzen kapillau izandako Etxeberri'k, 1848'an, abiatu zuen Almanaka duzu, Etxepare'k, Pierre Etxepare apaizak lagunduta, amar urtez bederen, 1914'eko gerra piztu arteraino ager-erazi zuena. "Eskualduna" -k bere Almanaka zeukan; beraz, bi almanaka zuri, ta noiztik bein argitaratzen zuten ezkertiar beste bat, iru egutegi ziran aldi hartan mugaz bestekaldetik; baiña 1914'tik aurrera bi zuriak bat-egin zuten "Eskualduna"-ren itzalpena.

Lafittek (1990: 278), Etxeparearen lana hain ondo ikertu duenak, honela jarraitzen du:

Pierre Etchepare bere anai aphezarekin ager-arazten ere zuen urthe guzietan "Eskualdun laboriaren almanaka", hamar urtez jarraiki zaizko biak sail horri, 1914eko gerla phiztu artio. Almanaka hori, Etcheverry Uztaritzeko serora beltzen omonier xahar zenak abiatua zuen 1848an, "Eskualduna" sortu zelarik, almanaka bat atheratu zuen harek ere. Bi almanaka xuri bazi-zen bada denbora batez, ezkertiarrek noizean behin hirugarren bat- hau gorra- argitaratzen zutelarik; 1914etik aintzina bi xuriek bat egin zuten "Eskualdun"aren itzalpean, eta gure mirikuak bururaino lagundu zuen bere argietan eta bere luma zoragarrietan.

5.- *Buruchkak. Lekornen eta Alduden* (Tours, 1910). Marme. 213 orrialde. "Eskualduna" aldizkarian 1902tik aurrera argitaratu zuen artikuluaren bilduma. Kronika batzuk dira, kazetaritzaren generoan, baina Etxeparek beste motatako kronika eskaintzen du, kronika li-

(5) *Eskualduna* zen Ipar Euskal Herriko aldizkaririk iraunkorrena (1187tik-1944 urtera arte). 1887.ko martxoaren 15ean Baionan xurien (errepublikazaleak) aldeko sortutako aldizkaria. Lehen zuzendaria Arnaud Pochelou izan zen, eta bigarrena, Jean Hiriart-Urruty, bultzada handiena eman ziona. Hiriart-Urrutyk astekari honen edukari haize berri bat eman zion, euskarari nagusitasuna emanez. Hauek eta euskal kazetaritzari buruzko datu gehiago biltzeko ikus Diaz Noci, J., 1999, *Euskal kazetaritzaren historia*.

terarioa. Etxeparek berak “entsaio liburua” deitzen dio bere lanari. Casanaveren ustetan (Urkizu et al, 2000: 600), lan honek osatzen dituen 26 idazkiak honela sailka daitezke: 15 entsaio eta diskurtso filosofikoak; 7 autobiografikoak; 2 berri autobiografikoak eta erretratu literarioak (bat Zalduby poetari buruz); bat gutuna; eta beste bat sententzi laburrak. Lafittek hurrengo hitzak ematen dizkigu liburu honetaz (1980: 13):

Liburu honi ditaken eskuararik garbienean egina delakotz, nahi izan dugu salbatu: bi kapitulu dohakabeez arindurik eta hitz dopherchko bakhar batez, zen bezala agertzen dugu.

Buruxkak izenburu duen liburu honen lehen bilduman Medikuntzarekin zerikusia dutenak bi ditugu: “Mediku zaharrak gazteari” (121-125 or.) eta “Eriaren gela” (173-176 or.). Lehen izenburuan hiltzeare dagoen mediku baten gogoeta dugu:

Adituko dut edozoini urrerik ez dela aski, gizon baten bizia eros dezakenik. Eta bizia begiratu dakokanean, hogoi libera urre haren ganik ezin bilduz higatuko duk hire burua, galduko heure bizia. Atxizkik halere hire eskuak garbi, laño hire bihotza. Medikuntza duk ofizioetan ederrena.” (123)

Hala ere, bilduma honen bigarren ekarpen medikuan gaixo baten gelak bete behar dituen garbitasun irizpideak eskaintzen dizkigu Etxepare Doktoreak.

7.- *Iritzi eta kritika* (1922). Izenburu honek hainbat artikulu biltzen ditu: *Eskualduna* eta *Gure Herria* aldizkarietan argitaratuak, Agirre-ren *Garoa*, Axularren *Gero*, Duvoisinin lana eta Pierre Etxeparerenak.

Lafittek liburu honi buruz emandako datuek honela diote (1990: 282):

Iritzi eta kritika tituluaren azpian ere, zer ez dauku erakutsi eskuarari eta eskuarazko liburueri zoakotenik? Orhoit gira nola axalkatu zaukun jakituz bezala Aguirre-ren *Garoa*, nola bixtarat eman Axularren *Geroa* eta Duvoisin Kapitainaren lan gaitza. Ez ditugu ahanztekoak Eskualtzaleen biltzarreko hitzaldi zombait, ez da Pierre Etxepare bere anai aphezari egin ziozkan lerroak. Liburu huntako ondar-solasean ager-arazten ditugu lerro hoik: erakutsiko dute nolako bihotzaren jabe zen, eta hogoi urtheren buruan zer bidea eginik zagon, sendimenduz ala mintzairez.

8.- *Beribitez* (Baiona, 1931). Laserren. 112 orrialde. Guda zibilen osteko garaiko idatzitako artikuluez osatua, Etxepare Doktoreak *Gure Herria* aldizkarian argitaratutako lenekin, berebitez egindako bidaia kontatzen digu gure autoreak. Kanbotik irten, Donibane-Garazi, Iruña, Loiola, Donostia, Hendaia eta Donibane-Lohitzun ikusirik, berriz ere Kanbora itzuliz.

Lan hau Xarrittonek egindako lehen alean (1984) sartzen da. Artikuluen artean Pierre Broussain mediku euskalzaleari (1859-1920)

eskeinitako lana nabarmendu nahi dugu. Artikulu honek “Pierre Broussain medikua” izenburua du (183-185)(6).

Hala eta guztiz ere, azpimarratu nahi dugun ekarpena *Mediku-solas* (1985, III) da. Artikulu bilduma honek Euskal Herriko Medikuntzarekin zerikusi handia du, eta lapurterazko laburpen terminologiko bat bezala har dezakegu lan hau. Artikulu honek XX. mendeko hiru lehen hamarkadeen medikuntza orokorra eta Iparraldeko medikuntzari buruzkoak dira.

Lehen artikuluan, “Gure Gorputza” izenburu duen lanean (11-87 or.), Etxepare Doktoreak gorputzearen zenbait parte aipatzen ditu, beste hainbeste, “Sudurra”, “Eztarria, kokorra, zintzurra, giranoia”, “Zelulak”, “Jaidura eta azturak” eta “Gure bihotza”. Gogoeta literario-medikuak dira, eta autorearen helburua ez da ideia mediku berririk planteatzea, baizik eta euskarazko terminologi medikua finkatzea, euskararen baliotasuna erakutsiz.

Bigarren atalean, izenburu orokorra duen “Zauri, min eta gaitz” lanean, “Suge ausikiak” (91-93 or.) ekarpena dugu lehendabiziz. Testu honeten sugerriaren sastaden kontrako osagarriak aipatzen dira, herri-medikuntzarekin lotuta daudenak. Bigarren ekarpenak, “Aguardiante” (95-97 or.), pattarraren edatearen ondorioak ditugu.

Bigarren atal honen hirugarren kapituluan, “Kotsuaz” (99-102 or.) infekzioen aurkako osasunbide praktikak eta aurretiko neurrietaz hitz egiten da. Zentzu honetan, Etxepare Doktoreak formolaren berezitasunak aipatzen ditu.

Laugarren testuan “Haurren paralesia” (103-106 or.) poliomeilitisaren gorabeherak jakinerazten dizkigu Etxeparek. Honela, Euskal Herrian dituen eboluzio eta tratamenduak aipatzen dira. Bestaldetik, testu mediku hauen atalean, bostgarren ekarpenean Iparraldeko autoreak mikrobiologiaren historiari buruz hitz egiten digu (“Hetika” (1 eta 2) (107-129 or.), hain zuzen tuberkulosia eta arlo honetako Pasteuren jarraitzeileak agertzen dira, Roux eta Calmette mediku frantsesak. Etxepare Doktoreak tuberkulosiaren eragina gogorazten digu eta ikerlariek gaixotasun honetarako zeunden txerto eta tratamenduak lortzeko asmotan jarraitzen zuten prozesua(7).

Gai medikuek hitz egiten zituenean Lapurdiko idazle eta medikuaren helburua euskarazko hizkuntza zientifiko bat lortzea da. Honi dagokionez, eta kontestu historiko bat erabiliz, Euskal Herriko kokapen batzuk sufritzen zuten industrializazio prosezura (XIX. mendeko amaiera eta XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan) jotzen dugu, Sánchez Granjel Irakaslearen hitzetan (1983: 170):

... impone una situación social en la que la vida en algunos medios urbanos se desenvuelve en condiciones higiénicas precarias, lo que favorece la persistencia de las que cabe denominar “enfermedades sociales”, destacando, con padecimientos infec-

(6) ikus Broussain medikuari buruzko egindako aipamena (66-67).

(7) Ikus lan honen *Testu medikuen aukeraketa* izenburu duen eranskina.

ciosos infantiles, procesos endémicos con elevados índices de mortalidad como la tuberculosis o la fiebre tifoidea.

Zazpigarren testuan, “Gaitz izenik gabekoa” (131-135 or.), odolaren bidez transmititzen diren gaxitasunez hitz egiten du Etxeparek (“zerrena” bere hitzetan). Hurrengo lanean, “Min gaixtoaz” (137-144 or.), Lapurdiko Doktoreak minbizi linfaticoaren kontrako osagarriak aipatzen ditu. Jarraian, “Alkoola” izenburu duen beste lan bat aurki daiteke (145-151 or.). Hemen, Euskal Herrian alkoolak duen eragin eta mendekotasunaren kontrako tratamenduak ditugu. Hamargarren eta azken artikuluan “Behako bat gibelerat” (153-157 or.) tuberkulosia, gibleko gaixotasunez eta operazioaren arrakastaz hitz egiten da, tratamendu terapeutikotzat hartuz gero.

Hirugarren bilduma, “Ohar, arta, aurkibean” artikulua mediku labor eta dezberdinez osatua dago. Lehen testuak, “Zakur errabiatuak ausika” (161-164 or.), zakur amorratu baten aurrean segitu behar den prozedurarekin zerikusia du. Bigarren eta hirugarren testuak, “Haragi jale” (165-166 or.) eta “Etxe jende hiltzaileak” (167-170 or.) ez dira medikuak. Laugarren artikuluan, “Gaitz eta sendagailu berri” (171-173 or.), meningitisa eta haren birusa aipatzen dira, era berean, gaitz honen kontrako sendagailu berri ematen digu Etxepare Doktoreak. Hurrengo artikulua baten, “Sortze gehiagoren ukaiteko” (175-180 or.), Iparraldeko demografiaren mintzatzen da. Laugarren artikuluan, “Koch” (181-185 or.), tuberkulosiaren deskubritzailearen erretratu bat eskeintzen da, Koch mediku alemaniarrarena. Bilduma honen koordinatzaileak hurrengo aukeratutako artikuluan, “Operazioneak” (187-190 or.), Etxeparek zirujautza lanbidearen gorabeherak komentatzen dira, adibidez, anestesia eta Iparralden mediku eta zirujauetz osatuak sortutako klinikak.

Hurrengo bi laneetan, “Gure soldadu kolpatuak” (191-205 or.) eta “Soldadoen artak” (207-216 or.), soldaduek gudan sufritzen dituzten gaixotasun eta kalteak aipatzen dira, era berean, ebakuazio edota kanpaina ospitalen antolaketa eta Gurutz Gorriaren papera. Iparraldeko idazle eta medikuak I. Munduko Gudan idatzi zituen bi artikulua. “Jan-edan” (217-219 or.) lanearen alkoolismoaz mintzatzen da. Bilduma honen azken bi testuetan, “Itzal garbia” (221-231 or.) eta “Garbitasuna” (233-240 or.), X-izpiak eta osasunbidearen metodoak aipatzen dira.

Laugarren atalean, Iparraldeko XX. mendeko hasierako medikuntzaren egoera ezagutzeko ekarpen interesgarria, hamazazpi artikulua aurkezten dira (1904-1919). “Medikuntza Euskal Herrian” izenburu du bilduma honek. Lehen artikuluan, “Jakitatea” (243-246 or.) zientzia eta hainbat ikastegi didaktiko (Lizeoak, eskolak) deskribatzen dira. Bigarren testu baten, “Elosu Jaun medikua” (247-248 or.) Elosu Doktorea gogorazten digu Etxeparek. Fernand Elosu (Bordeaux 1875-Baiona 1941) mediku eta idazle liberala zen, eta II. Munduko Gudan preso bere gudaren kontrako idazkiegatik.

Sartutako hirugarren argitalpenean, “Eriaren artatzeaz” (251-254 or.), prebenziorako tratamenduak aipatzen dira. Beste hainbeste, gaixoaren gelaren garbitasuna eta tresnen desinfekzioa. Xarritonek aukeratutako bostgarren lanean, “Kutsua” (255-262 or.) kutsaduragatik transmititzen

diren gaixotasunen zerranda eta sofreren berezitasun osasungarriak eskaintzen ditu Iparraldeko Doktoreak. Hurrengoan, bi artikulua laburrak aurki daitezke, “Baratxuria” (263-265 or.) eta “Medela saltzalea” (267-269 or.), baratxuriaren berezitasun osasungarriak eta kaltzioaren gehiegizki erabileraz hitz egiten da. Zortzigarrena, “Medikuen, merkatuetan mintzatzea” (271-273 or.) medikuen ospeaz hitz egiten da. Ondorengo testuak “Hau ttipien hazteaz” (275-293 or.) umeen elikadurarekin zerkusia du.

Hurrengo ekarpenetan, “Jendekilakoa” (279-281 or.), “Jakintsunen bazkarian” (283-287 or.), “Kontsultez” (289-290 or.), “Erien ikustera joaiteaz” (291-293 or.), “Begiko” (295-299 or.) eta “Frantziako aztien alde” Iparraldeko gertaldi batzuk aipatzen dira.

Baina, gehien interesatzen zaiguna da “Medikuntza Euskal Herrian” izenburua duen ekarpena. Etxepare Doktoreak lanbide medikuari buruzko gogoetak eskeintzen dizkigu. Aldudeko idazleak medikuak jainkotzen zituzten sinismenak kritikatzeko, eta, ondorioz, miraririk ez dagoela baieztatzen du:

Eta ez du bakarrik sineste bizi bat Euskaldunak medikuaren sorgingoan, sineste bera daukate aintzek, izaitekotz biziagoa, medikuaren ahaletan. Mirakuiluzkoak zeizete. Mirakuiluak huts egiten baldin badu, hara konfiantza eroria, hara fedea galdua, bazueta betierekotz! Elizan adituek baderamate ardura laboraria-
ren bihotza norat ere, jainkozko egintzer bakarrik eratzik baleza, baileramakete gutienik, erran nahi dut medikuaren alderateko fede neurri gabekorat. Medikuntzan ez baita ezen mirakuilurik sekula, medikuek eginik.

Harri litazke zombait eta suntsi, baliteke ez dela orainokoan, gaitz bakar bat, medikuek sendagailua hatzeman ahal ukan dioketenik. Medikuek ez du sendatzen; ez dezake; laguntzen baizik ez du erriaren gorputza, eritasunaren garaitzen.

... Berriz ere diogu: medikua ez da jainko, ez ezagutzeko begi ukaldi batez. Dezogun galdegin bakarrik, ahal bezain jakintsun bilakatzer beratu ondoan, izan dadien gure behar-orduetako erne, jarraiki, urrikalmendutsu. (309-310).

Azken bi artikuluetan, “Medikuen lan-saria” (313-315 or.) eta “Medikuen lan saria (Aldudarrez) (317-318 or.), gaixotasunaren eta lan istripuaren kontzeptuaren sortzeraren beharra zegoala komentatzen du Etxeparek.

Azkenik, bostgarren bilduma. “Eskualduna-ren Almanaka” sei argitalpenez osatua dago. Lehena, “Familiako medikua” (321-325 or.), medikuak bete behar dituen kalitateak aipatzen dira; bigarrena, “Gatz miresgarria” (327-329 or.) XX. mendeko hasierako tuberkulinari buruzko ezagutzak komentatzen ditu autoreak; beste lau aukeratutako argitalpenetan, “Loturu hezea” (337-339 or.), “Bixkaurra” (341-346 or.), “Tuberkulosa aberetan” (347-350 or.) eta “Eri-burukoa” (351-352 or.) gai mediku dezberdinez mintzatzen da,

osasunbidea, bizkarraren gaitzak, tuberkulosisa edota bestelako tratamendu kirurgikoak.

Xarrittonek koordinatutako beste hiru izenburuek, *II. Kazetaritza* (1903-1935) gai linguistiko, politiko eta sozialak aztertzen dituzte. Hala eta guztiz, azken ale honek hiru artikulua medikuak eskeintzen ditu, *Eskualduna* aldizkarian argitaratuak: “Etendura uhalez” (1926-I-29), “Urepeldareri” (1924-X-24/31) eta “Handitsuez” (1932-I-29)(8).

a) JUAN ANTONIO MOGEL URKIZA

a.1) Bizi zehaztasunak

Hiru Mogeldar daude Euskal Literaturan, Juan Antonio eta honen ilobak Juan Jose eta Bizenta nebarrebak. Juan Antonioren aita, Juan Inazio, markinarra zen jaiotzez, aitona, ordez, Alfaron jaio zen, gero Markinan sendagile egona zen, eta amona arabarra zuen idazle honek. Juan Inazio, Gabriela Inazia Urkitzarekin ezkondu, Agurainen eta Eibarren medikuntzatik bizi zen. Hemen jaio zen Juan Antonio Mogel 1745.ko abenduaren 6an. Orduko oiturari jarraituz egun berean bataioureuz indarturik. Bazituen anai-arrebak: Juan Inazio Ramon, 1747an Eibarren jaioa; Maria Josefa Lorenza, 1748an Eibarren jaioa; 1749an Debara aldatu zen Mogel familia, eta han jaio zen Juan Jose eta Bizentaren aita, Juan Jose. 1753an Deba utzi eta Eibarrera aldatu ziren Mogeldarrak, eta hantxe jaio zen 1753an gure idazlea, Juan Antonio(9).

Ez dakigu non egin zituen abade ikasketak. Dirudenez, medikuntza ikasketak utzi zituen, eta 1770an Markinan agertzen zen apaiz gisa. 1775an Etxebarriko Ander deunaren eleizan daukagu, eta azkenean, 1778tik bere heriotzararte Xemeingo erretore.

a.2) Euskal lanak

Confessio ta Comunioco sacramentuen gañean eracasteac edo cembat gauzac lagundu behar dien Confesio ta Comuniore ongui egiñac izaiteco (Iruña, 1800).

Ezkerroren alargunaren etxean zegoen. 255 orrialde. Gipuzkeraz dago. Bigarrenez ere Tolosan agertu zen 1885ean. Hau da Mogelen doktrina-lanik zabal eta garrantzitsuena. Hala ere, ez da lan oso bat, zati bat baizik. Bigarren zatiak *Cristau Eracastle euscalduna* du izenburu, eta 388 orrialde ditu, baina argitaratu gabe datza Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegian.

Argitara emateko Kardaberaz bezalako zailtasunak izan zituen. III Karlosen ministro zen Aranda Konteak gaztelaniazko beste argitalpenik ez egiteko agindua eman bait zuen (erzimbengoa eta al, 1974: 30).

Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos, o demostración práctica de la pureza, fecun-

2.- BIZKAIKO LITERATURA: MEDIKUNTZARI EGINIKO EKARPENAK

(8) Hiru artikulua hauek *Mediku-solas* izenburupean daude (Xarritton, 1996).

(9) Juan Antonio Mogelen bizitza ezagutzeko ikus Garate, J., 1936, *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*, Imprenta Prov., Bilbo, 35-106.

didad y elocuencia del idioma bascuence contra las preocupaciones de varios escritores extraños, que solo tienen una noticia superficial del idioma patrio. (Tolosa, 1802).

24 orrialde. Gipuzkeraz. Konto Kruzio, Salustio, Tito Libi eta Kikeronen hitzaldi eta jardun zatiak euskara itzulita.

Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcainas y castellanas para que se puedan entender ambos dialectos.

Zortzi orrialde. Humboldték aipatzen du bere *Rectifications et additions au Mithridate d'Adelung* delako lanean.

Confesiño ona edo ceimbat gauzac lagundu bihar deutsueen confesinuari ondo eguiña izateco.

Gasteiz 1803. Fermin Larunberen etxean aurkitua. 296 orrialde. Bizkaiko euskaraz idatzia dago. Lehenengoz guipuzkeraz atera zuen Mogelek; gero bizkaieraz 1853an argitaratu zuen osoa. Beste argitaldi guztiak laburragoak dira.

Cristinaubaren jaquinbidea aita Astelec erdaraz egina, ceñetan aguertu ta adierazoten dirian itaune ta erantzunetan gueure fedeco gauzatic biarrenac.

Gasteiz 1805?; Bilbo, 1821. 96 orrialde. Laburpen bat Busturiko eleizarako.

El Doctor Peru Abarka, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan.

Bilboko *Beti Bat* egunerokoan (1880), atalka agertu zen lehenengo, eta gero Durangoko Elizalderen irarkolan atera zen (1881). 240 orrialde. Geroago ere, Durangon 1904an eta Zarauzen 1956an argitara ekarria izan da; eta azken, Retana Jaunak Bilbon, Azkuek euskaraz eta erdaraz atera zuena ere. Gregorio Arruek gipuzkeraz jarri zuen (BRSBAP, 1948-50)(10).

Análisis filológico de un sermón euskérico.

Sabino Aranak atera zuen *Bizkaitarra* aldizkarian (1895).

Pascalén gogamenak.

Azkuek *Euskalzalén* argitaratu zituen (1899).

La Historia y Geografía de España ilustradas por el idioma vascuence.

192 orrialde. Justo Garateren ardurapean *Euskera* aldizkarian argitaratu zituen pusketa batzuk (1935). Mogelek bere garaiko giroari jarraituz eusko-iberismo eremuan kokatzen da lan hau.

Ipui eta bertso batzuk.

Bere iloba Bizentaren liburuan datozenak.

a.3) Peru Abarka

Orixek (1927: 232) hauxe dio *Peru Abarkari* buruz:

Bizkaian ez ezik Euskalerrian argitara den libururik ederretanetakoa da Peru Abarka (1881). Euskal-biziera gai hartu zuen,

(10) Liburu honen argitalpenen analisi kritiko bat ezagutzeko Ikus Altzibar, X., 1990, "Peru Abarka-ren kopiak eta lehen edizioa", ASJU, 3. 871-887.

eta horregatik zaigu zalagarriago. Peru nekazaria, eskolagabea, euskaraz besterik eztakiena, Maisu Juan sendagilearekin ariarazten du. Peru ederki bezain Maisu Juan gaizki mintzatzen da. Gure Basarteko Irakasleak erakusten dizkio Maisu Juani eta guri ola, errota, eundegi, ardandegi eta gai erako lantegietan eta bildegietan diren gauzak eta hitzak. Esaera, oikuntza, neurtiz, atsoitz eta olakoak edertzen dute liburu hau. Atzenean erkatxi ditu latinezko itzulpen batzuk: Curtius, Salustius, T. Livius, Cicero; ez ditu oso motel ari euskaraz. Izakera apaina, bizia, etorria, ugaria eta egokia du.

Beraz, lan hau Mogelen libururik ospetsuena da. Elkar hizketan dago: baserritar eta barberu baten artekoa. Liburu hau Euskal Literaturan dagoen dibertigarrienetariko bat dugu. Honetaz aparte, interes zientifiko handia du lan honek, bere garaiko hizkuntza, ohitura eta teknikari buruzko berri anintz eskeintzeagatik.

Honako atal hauek osatua da (ik. Altzibar, 1992: 178):

Prólogo al Lector Vizcaíno. Diálogo I. Entre el inculto bascongado y el Barbero Maisu Juan y el culto casero, Peru, 1-20.

Diálogo II. Entre los mismos Maisu Juan, y Peru. Interloquutas la Ventera, y su Criada, 21-40.

Diálogo III. Entre los mismos maisu Juan y Peru, 41-60.

Diálogo IV. Continua Peru en instruir a Maisu Juan, 61-80.

Diálogo V. Entre los mismos Maisu Juan, y Peru. 81-104.

Diálogo VI, 105-129.

Diálogo entre dos amigos eclesiásticos, el P. Fr. Pedro de Urlija, y D. Juan de Zandija, 130-135.

Alexandroren Verbacuntzia bere Gaisotasunian Adisquide, ta Osaguilliai, 136.

Catilinaren Jardun erreguzcua bere Soldadubai. Salustio, 137-140.

Germanicoren verba-jarduna Soldadu machinatubai. Ex Tacito Lib. I, 141-144.

Escipionen jarduna Erregue gazte bati, 144-145.

Exordio de la Oración I^a de marco Tulio Cicerón en el Senado contra Lucio Catilina, 146-147.

Exordio de la Oración II.^a de M. tulio Cicerón en el Senado contra Catilina, 148-149.

Guizon dongueen bijotzac zaurituten ditu barruco arrac. Ex Tusc. Cicer, 150-151.

Falisco Maisubaren Billauquerija, 151-153.

Nomenclatura de diferentes voces vascongadas, comunes a los Rusticos é ignoradas por no pocos de los Bizcainos.

1802ko otsailaren 26an Vargasi idazten dion eskutitzean obra luze samar eta mintzagai askotarikoak erabiliz euskal hitzen garbitasun, aberastasun eta euskararen elokuentziarako iaioatasuna erakusteko moldatuak omen dituen elkarrizketa hauen berri ematen dio¹¹.

a.4) Iritziak

Peru Abarkari buruzko kritika eta aipua beti izan dira goraiatzai-leak. Honela, aproposa iruditzen zaigu Sarasolak aspektu ideologikoaren gainean esandakoaren arabera (1970: 343), *Peru Abarka* Rousseuren primitibismoaren molde bat besterik ez zen izan. Sarasolaren ustetan, Rousseau izan zen egonezin honetaz historiaren filosofia bat egin zuen lehena, baina, *Peru Abarka* liburuak garai hartako tesi primitibista mantentzen du baita ere, bere hitzetan “[...] baserriarren bizitza moldeak eta hizkuntzak izan behar duela eredu euskaldun ororentzat”.

Sarasolarekin bat etortzea ala ez aparte utzirik, zeren teori batek ez du bestea lurperatzen, esan dezakegu, Mitxelena jaunari jarraituz, Euskal Literaturan azaldu den eta egin den libururik dibertigarriena dela *Peru Abarka* hori. Garai hartako ohitura, lengoaia, teknika, jakin nahi litukeenak, liburu horretan aurkituko ditu. Larramendik egiten dituen agertaldiak bezain jatorrak dira, zenbaitetan agertzen dizkigun berriak; hots: oletaz eta olagizonetaz. Euskal eleberritarik literarioak izan duen lehenengo ahalegina.

Bestetik, eta lan honen goraiamenak gogoratu, Orixek ere txalotu zuen *Peru Abarka*. Hala, Bizkaian eta Euskal Herri osoan agitaratu

(11) “Con el objeto de vindicar el idioma de la acusación de la pobreza, he trabajado una obra de *Diálogos vascongados entre un rústico casero y un cirujano callejero*. Tendrá la obra como unas doscientas ó más páginas en 4º, y en tantas conferencias y de asuntos diferentes jamás profiere el rústico voz alguna que no sea usual entre los de su clase y deje de ser pura, sin mezcla de extraña y corrige al inculto cirujano en sus bárbaras locuciones, el idiotismos del vascuence. [Instruye a éste en bellos refranes, en saladas locuciones, en idiotismos del vascuence, *Euskal-Erriako* edizioa]: le hace oír poesías curiosas de los mismos rústicos, fábulas con su moralidad. Así se demuestra prácticamente que el vascuence es fecundo en voces y aptísimo para la poesía. Le hace viajar por los bosques para en señalarle los muchos árboles y arbustos con sus nombres vascongados. Le introduce en una ferrería, y halla centenares de voces vascongadas en instrumentos, parajes, etc. De esta manera recorre las oficinas del tejedor, del carpintero, del molinero... = En suma, habla de un vascuence natural, usual; y los cultos vascongados, ó los que debían ser tales, no le entenderán al buen rústico en multitud de voces. Para evitar este inconveniente he trabajado para el fin de la obra una nomenclatura de todas las voces contenidas en ella y proferidas por el rústico, con sus correspondientes castellanas. Me ha parecido el mejor método para que se cultive nuestro idioma, y si otros prosiguen en ello, no se nos podrá causar de la pobreza de voces, y sí solo de nuestra desidia. Para prueba de que el vascuence es lengua capaz de toda elocuencia, en un diálogo entre dos eclesiásticos dedicados al estudio de su idioma patrio, ingiero traducciones vascongadas de las arengas ú oraciones latinas de Q. Curcio, Salustio, Tito Livio, Tácito, y los exordios de las dos oraciones de Ciceron contra Catilina. Se ve en piezas tan oratorias un vascuence puro, correcto, salado, y elevado al grado de elocuencia. En verdad que siendo tan diferentes los idiotismos o propiedades de ambas lenguas, no se puede hacer una traducción servil, sino algo libre sin alterar las sentencias. Aquí no hay gloria para mi, sino para los autores latinos que se valen de su arte retórica, y para nuestro idioma, que tiene con qué responder”. Mogelek Vargasi, Markina, 1802.2.26an. *Memorial Histórico Español*, VII, 704-5.

zen libururik ederrenetakoa iruditzen zitzaion Orixeri (1927: 232). Harek esan zuenez: “Euskal biziera gai artu zuen, eta orregatik zaigu zalegarriago”.

Astarloarekin alderaturik, hala ageri zaigu Garateren iritzian (1936: 103):

Es más virtuoso, más medurado y juicioso, y sobre todo, tenía fe con obras, es decir, se aplicó al cultivo práctico del idioma, mientras que Astarloa se redujo a escribir en castellano apologías de la lengua vasca.

Honetaz aparte, Garate jaunak Mogel eta Astarloa aurpegiz aurpegi jartzen jarraitu zuen, bakoitzak zeuzkan alde onak eta bada-ezpadakoak argi jarriak: “Astarloa eta Mogel tartean bizi bikiak egingo ba genituke, onek ari aurea artuko lioke apaizgintzan, euskal idatzi ederrean...”.

Lojendiok ere aipatu zuen lan hau (1960: 157):

Mogel'en soluan ez zan egoteko betarik. Ura langilearen bikaña! Ura euskerarenganako maitasuna! Kaletar erderazaleei, euskeraren aberastasuna erakutsi nai zien. Eleiz-liburuetan ez ezik, gañerako beste edozein idaz-gaietan ere. Euskaldunen izkuntza, izango ez ote zan bada, beste errietakoak bezin trebe ta egokia, berak aña gauza esateko? Noski, euskaldunak, burua zerbait nekatu nai izan ezkeru. Eta Mogel'ek, euskaldunen alperkeri ta nagikeria astindu naiean, ekin zion lanari.

Mitxelena liburu honen interesaz hitz egin zuen (1960: 108):

[...] no es solamente el más ameno de toda la literatura vasca, sino también el de *mayor interés científico* por las abundantes noticias que ofrece sobre el lenguaje, las costumbres, y la técnica de su época... [...] En cierto modo es, en forma dialogada, el primer conato de novela en vascuence.

Aita Villasantek Mogeli buruz esan duena aipagarria da baita ere (Villasante, 1961: 209):

Mogel'en lana jatorra dugu; euskal bizitza du oiñarri, XVIII garren mende azkenerantza Bizakia'n bizi izan zana. Eta aren izkerak, iztegi ugari, itz-inguru, esaera bitxi, atsotitz eta abarrekin, euskaldun utsarena adierazi nai du. Mogel'en tesia, beraz, auxe da: euskerari begira, gure baserritarrak dira maisu ta aiengandik ikasi bear dugu; eta besteak, eskolatuak, ondatzaille ez dira besterik, eta Peru baserritarraren ikasle izanik ikasi dute soilki dakiten on gutzia.

Mitxelena ustetan, *Peru Abarka* da, elkarrizketen bidezko metodoa erabiliz, euskarazko lehenengo eleberriaren saiakera. Peru *Buen Salvaje* liburuaren euskal bertsioa da, misiolarietako enziklopedisteei emandako ekarpena. Baserrietan, apartekoak direnak, hizkuntzaren lekuri aproposenak izaten ziren.

L. M. Mujikaren ustetan (1979), *Peru Abarka*ren tesia moldagabeta-sun idealizatua da. Liburu honek gizaseme jatorraren “esentziak” idea-

lizatzen ditu. Mogelen goiburua euskal gizarte moldagabeara bueltatzea da, baserria oinarria izanik.

Juaristiren analisiak (1987) *Peru Abarka* desagertzeaz dagoen gizar-tearen defentsa bat dela, hain zuzen ere, defentsa herrikoa. Hau da, Juaristiren esanetan, Mogelek baserritarrak direla hizkuntzaren eta kulturaren jatorria duten bakarrak erakutsi nahi die jakituneei. Baina, autore honek jarraitzen du esaten Mogelen *populismoak* ez duela iraultza esan nahi, baizik eta despotismo ilustratuaren kritika bat. Beraz, autore honen ustetan, Mogel tradizionalista bat da.

a.5) Mogel eta medikuntza

Mogelen erlazio medikuak justifikatu daitezke (bere senideak anaia eta aita medikuak baiziren)(12), Garatek esan zuenez (1936: 36)

[...] como hombre discreto que es, deja a salvo de su crítica los médicos (pero no a subordinados, barberos y cirujanos); a los cuales declara claramente inferiores, ... tanto en el conocimiento de los simples como en el dominio práctico de la Anatomía al menos en lo que a huesos se refiere.

Garate Doktoreak, lan berean, zirujau-barberuen garrantzia azpimarratzen du, eta honela kritikatzeko:

[...] porque sangran sin consultar a los médicos y además lo hacen muchas veces que no debieran. Se ve su ambiente médico-familiar en los conocimientos anatómicos que a menudo exhibe.

Mogelek, bere liburua idazterakoan, egoera hau aprobetxatu zuen bere garaiko zirujau eta barberuak kritikatzeko, Maisu Juan pertsonaia erabiliz. Honela, haien arrotasun eta formazioaren falta azpimarratzen zuen ironikoki.

Bestaldetik, Mogelen liburutegian eskuliburu mediku anitz zeunden, eta Eibarko autoreak liburutegi hau erabili zuen bere kontsultarako, beste hainbeste, Martin Martinezen *Anatomía Completa* (mende honetako liburu medikurik ospetsuena). Horregatik, bere barberuari “anatomiko Martineianoa” deitzen dio.

Liburu honen bigarren aspektu medikua Barberuen deskribapen fisikoa da. Adibidez, haien arteko janzkera onaren garrantziari buruzko elkarrizketa(13):

Jaungoikoak librau zagizala Barberu modako, Dotore txar, apaindu ta barritsuetati. Kortejante batzuk dituzu: igaroten iakee denporea zertzuk moda direan konteetan. Figureria guztiak gura ditue; Jauntxo egin gura dabee, ta andikiak baiño apainduago ibiltzen iatzuz. Ze kuraziño egingo dabee Barberu delikau oneek?

(12) Ikerketa historiko-mediku sakon bat eskuratzeko ikus I. Barriolaren “Nueva lectura de Peru Abarka”, 1985, Cuadernos de Historia de la Medicina Vasca, III, Bilbo, 19-36.

(13) Hona hemen erabili dugun edizioa: Mogel, J.A. *Peru Abarca*, Juan San Martinek prestatutako edizioa. Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1970. 18.

Ibiliko dira gaisoen artean odolak mantxau eztagizan bildurrez sangria bat egin bear danean.

Janzkeraren gaiak badu bere garrantzia zirujauen artean, mendeen zehar bi mota baitzeunden: “latindarrak”, humanitateak ikasi ondoren haien titulua lortzen zutenak; eta “erromantzezaleak”, jantzi laburrak erabili zituztenak, beste tituludun batekin urte praktiko batzuk egin ondoren haien titulua lortzen zutenak.

Beraz, Maisu Juanek, Barberuak, “latindarra” ez izategatik, ezin zuen togarik erabili, baina aintzinako Barberuekin, dezberdinu nahi zuen, hobeto jantzita baina formazio gutxiarekin.

Honela, Mogelek Barberu latindarrak kritikatu nahi zituen, lanbidearen desohorea, ikasketa gutxi eta botika anintz errezetatzearen errezta-sunarekin, asko hitz egiten zutenak.

Hirugarren aspektu medikua Barberuak eta haien ikasketak dituen garrantzia da. Maisu Jaunek Madrileko ospitalean bi urte zegoela dio. Bere gaintasunaren froga bezala hiru azterketa gaingitu behar zituela ematen du. Beraz, Barberu, Sangradorea eta Zirujaua dela ziurtatzen du:

Agiri dozu, adiskidea, baserrian azi zareala; eztozula iñoz Bizkai ta baso-arteti urten. Barberu edo bizargillea baiño gehiago naz. Iru titulo emon eusteezan Madrilaen, da orretarako igaro nituen iru esamña kruel tribunale lotsa andiko baten. Naz, bada, Barberua, Sangradorea ta Zirujaua.

Gehitu behar da lanbide medikuari ekiteko baimena Protomedikatoak ematen zuen garai hartan. (14)

Juan Antonio Mogelen obraren aditu handi batek, Mitxelenak (1978-79: 204), humanista deitzen dio Eibarko idazleari:

Moguel sí es un humanista, pero ya no podría afirmarse que es un entusiasta de la ciencia moderna. ... No hay que olvidar, sin embargo, que la formación de los colegas de Maisu Juan había mejorado mucho en España durante la segunda mitad del siglo XVIII: él mismo nos habla de los estudios que ha hecho y de los exámenes “cruelles” por los que ha tenido que pasar.

(14) Euskal Herrian Protomedikatoak ematen zuen baimena. “Promediado el siglo XVIII se hacen evidentes en el País Vasco, como igualmente en el resto de España, signos de un manifiesto auge médico, la efectiva superación de la crisis iniciada a comienzos de la centuria anterior; los cirujanos, con mejor formación, remontada su condición de simples empiricos, aspiran a un reconocimiento social que los aproxime al que ya poseían, de antiguo, los médicos; esto debió alcanzarse con iniciales dificultades, como lo permite suponer la crítica al cirujano con estudios y conocimientos anatómicos y práctica hospitalaria que se formula en los primeros capítulos de *Peru Abarca*, novela cuyo autor perteneció a una familia con miembros que descollaron en el ejercicio de la medicina”. (Sánchez Granjel, 1983:40).

Gai honi buruz Granjel Irakasleak gaur egungo Medikuntzari dedikatzen dio atalean Medikuntz Modernoaren ezaugarririk interesgarriena medikuen profesionalizazioa dela erakusten du. Protomedikatoak intrusismoa arautzen du. Honela, Mogelek unibertsitateko gaitasun profesionala defenditzen du baita ere, ideiei honek bere fikzioan formazio gutxiago duen Peru pertsonaiak betetzen du, Maisu Juanen kontra.

b) RESURRECION M^a AZKUE

b.1) Bizi zehaztasunak

Resurrección M^a Azkue Lekeition jaio zen 1864an. Gurasoak Eusebio M^a Azkue olerkaria, hiri berean jaioa (1813an), eta Maria Karmen Aberasturi, Mundakan 1835ean jaioa. Lekeition Nautika Eskolaren katedra lortu zuen Eusebio M^a Azkuek, eta bizileku honetan hasi zen Azkueren herriko euskera eta euskal literaturaren zaletasuna. Halaber, musika giroa ere xurgatzen zuen, eta horrela egin zituen musika ikasketak. Lekeitioko Nautika Eskolan bi urte bete ondoren Gazteizko Apezgaitegira jo zuen 1881ean eta 1885 arte burutu zituen Filosofia eta Teologia ikasketak.

Azkuek, euskalzale handia izana, euskararekin lehen urratsa eman zuen Euskara Katedra Bizkaiko Institutuan lortu zuenean (15). Bertan eman zituen lehen pausuak, euskara ikasketak ematen eta ikasleentzat ikasgaiak prestatzen. Lehen emaitza hiru urte ikastetxean igaro ondoren argitaratu zuen: *Euskal Izkindea* (1891ean).

1918an Euskal herriko lau Diputazioek onartu zuten Oñatin Euskararen Akademia sortzea. Beraz, 1919an, eta lau Diputazioen babespean, sortu zen Euskaltzaindia. Azkue izan zen lehen Euskaltzainburu izendatua, eta karguan iraungo zuen hil arte (1951ean). Bertan lan egiten zuen beste euskalzale handi batzuekin batera, hots, Julio Urkixo, Luis Eleizalde eta Arturo Kanpion. Sekulako lana egin zuen Azkuek Euskaltzaindian, euskarari buruzko ikerketak, artxiboaren materialak antolatu, lan ugari prestatuz, eta *Euskera* aldizkaria argitaratu eman.

b.2) Euskal lanak

La Abeja izeneko aldizkarian argitaratu zituen Azkuek bere lehen lanak: *Peru matrakata Pedranton* (1889an). Beste astekari baten sortzailea ere izan zen apeza lekeitiarra, *Euskalzale* (1897an). Euskararen zabalkindearentzat lanean jarraitu zuen, eta hala, *Ibaizabal* aldizkaria, Kirikiño zuzendaria izanik, bultzatu zuen Azkuek. *Euskalzale* aldizkarian beste autoreen lanak argitaratu zituen idazle lekeitiarrak, moldiztegi bat bihurtu baizen, beste hainbeste, Pedro Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna* (1897an), Astuiren *Parnasorako Bidea*, Eusebio M^a aitaren olerkiak, Pedro Antonio Añibarroren *Eskuliburua*, Juan Antonio Mogelen *Konfesio ona* eta *Peru Abarka* (bertsio elebiduna, gazteleraizko itzulpena Azkuek berak egin zuelarik), Juan Antonio Ubillosen *Kristau doktriñ berri ekarlea*, eta Domingo Agirrereren *Auñamendiko lorea*.

Bestetik, Azkuek eleberriak idazteari ekin zion: *Ardi galdua* (1918an), gipuzkeraz (*La oveja perdida*, 1919an, gazteleraizko bertsioa) eta *Latsibi* (1989an Euskaltzaindiak kaleratua).

Halaber, Azkue hizkuntzalari nabarmena izan zen 1888an euskara katedra irabazi zuenetik geroztik. Lan gramatikalen artean, *Ortografiako*

(15) Aureliano Galarzak eskatu zion Bizkaiko Diputaziori euskara katedra hau. Katedra honen eskatzaileak bost izan ziren: Migel Unamuno, Sabino Arana Goiri, Luis Iza, Pedro Alberdi eta Azkue bera. Batzordeak emaniko hamaika botuei esker irabazi zuen ikertzaile lekeitiarrak (1888an).

Proposamena (1896), *Bizkaiera eta Gipuzkera ikasteko Jardunbidea* (1896), *Bizkaieraz elkarrizketan ekiteko Eskuliburua eta Euskara 120 ikasgaietan* (1897), *Euskal Morfologia* (1923), eta *Herriko euskara ikasteko laburpen erraza* (1917), beste hainbeste. Hauek ikasbide, metodo eta ikerketa gramatikalak dira. Baina, *Euskera* aldizkaria sortzearekin batera esan genezake Azkuek zabaldu zituela bide berriak euskarazko ikerkuntzan. Bestaldetik, gramatikari garrantzitsua dugu Azkue, eta ezinbestekoa da gogoratzea haren *Euskara Espainera Frantsez Hiztegia*, 1905-1906an argitaratua Bizkaiko Diputazioaren babespean.

Honetaz gain, eta lehen aipatutakoaren arabera, Azkuek euskal folkloerari indarrak ekin zion, eta honela emaitza asko eman zituen euskal herri kantutegi, hizkuntzalaritza, gramatika eta lexikografiaren gainean. Hala, *Cancionero Popular Vasco* izenburuarekin atera zuen herri kantuen bilduma eder bat (1922-25, hamaika ale, Bartzelonan), 1.810 kanta - doinu izanik. Beste kantu bilduma bat eskeini zuen lekeitiarrak, *Cancionero selecto* izenekoa (200 kantu). Azkue musikari handia izanez, musika-lan ugari apaindu zituen, beste hainbeste, *Vizcaytik Bizkaira* (1895), *Eguzkia nora eta Sasi eskola* (1897), *Pasa de Chimbos eta Colonia inglesa* (1898), eta beste. Elizarako kantuak eman zituen garai honetan; *Elizarako eresiak* (1897), *Jesusen Bihotzari ihuak* (1899), *Done Joseperi Bederatziurrena* (1900), *La música popular baskongada* (1901), eta abar.

b.3) Euskalerrriaren Yakintza. Herri Medikuntzaren bilduma.

Azkueren Euskalerrriaren Yakintza, lau tomatan, 1935 eta 1947 urteen bitartean kaleratu zen. Lan hau Azkuek egindako ikerketa etnografiko eta literarioak sakonena izan daiteke. Bilduma hau ohitura, sinisleriak, atsotitzak, esakerak, ahokorapiloak, goitzenak, igarkizunak, irakurgaiak, eta beste, bildu zituen euskalzale lekeitiarrak. Ahozko eta idatzizko literatur bilduma honek aspektu medikuak ditu, eta nolana ere, hona hemen atera den atal historiko medikua (16):

Tomo I, XVI atala, (419-420). Langileei buruzkoa, medikuez hitz egiten duenean (17):

“He aquí, entre las numerosas Ordenanzas municipales de Bilbao, unas lindas, referentes a médicos:

- A) Médicos juren de no tener amistad de parcialidad con apotecarios. Osagileak zin egin begie botikarioakaz badaezpadako adiskidetasunik.
- B) Médicos estén en sus casas hasta las siete de la mañana para proveer la necesidad de los enfermos. Osagileak euren etxeetan begoz goizeko zazpiretarte gaisoen bear izanari erantzuteko.

(16) Atal hau Sarrionandia, B., 2000, BAP, 1, “Literatura vasca y medicina” izeneko artikulitik aterata dago (197-221).

(17) Madrilén argitaratutako edizio elebiduna erabili dugu (1957an).

- C) Médicos asienten en la receta lo que se ha de pagar por las medicinas. Osagileak osatxarteletan ezarri dagiela osagailu bakoitzagatik emon bear dana.
- D) Médicos lleven por cada visita en la villa medio real e no más. Osagileak uri-barruko ikustaldi bakoitzagaitik erreald-erdi artu dagiela ta ez gehiago.
- E) Médicos saliendo fuera de la villa media lengua lleven dos reales e medio e si más cinco reales. Osagileak uritik legua-erdi urtenezkero erreal bi ta erdi saritzat izan dagiela ta geien geenez bost erreal.
- F) Médicos visiten los pobres de los hospitales sin premio, por caridad. Osagileak ospitaletako txiroak sari bage, maitasunez, ikusi dagiezala.

III. atalean (71-81), gorputzari buruzkoa, medikuntz hitzak aurkitzen ditugu. Bestaldetik, IV atalean (120) ekintzei buruzkoa, txisak sendakuntzarako dituen propietateak erakusten dizkigu Azkuek, bildutako ahozko tradizioak, hain zuzen, baraurik dauden pertsonengan.

Halaber, III. tomoan (1. Zatia, 101-113) 120 atsotitzak ditugu, gorputzaren lohadarrak. Era berean, IV. Tomoan (4. Zatian, 217-265), Herri Medikuntzarekin zerikusia duten etxeko tratamendu medikuak eskeintzen dizkigu Azkuek: ortzak, alboreangoa, sarna, barea, idorreria, berazkoa, eta halako gaixotasuneen kontrakoak.

3.- NAFARROAKO IDAZLE MEDIKUAK

a) PABLO FERMIN IRIGARAI (LARREKO)

a.1) Bizi zehaztasunak

Pablo Fermin Irigarai Goizueta “Larreko” Auritzen jaio zen 1869an. Urteko urtarrilaren 25ean, ama Josefa Goizueta- doneztebarra- eta aita Ramon Irigarai - auriztarra zituela. Bere aita maisua izan zen eta Iruñeko “Asociación Euskara”ren lankidea (Onaindia, 1977: 387). Beraz Larrekok giro egokia zuen ikasteko. Bere Medikuntza ikasketak Salduban eta Madrilen burutu zituen, Medikua eta Ebaketari titulua eskuratuz 1892.an.

Bere lanbide mediku Beran egin zituen hasieran, Iruritan eta gero Iruñeko Ospitalean ebakuntza saileko lanpostua lortu zuen 1915ean. Garai honetan argitaratu zituen Larrekok bere lehen euskal lanak.

Felisa Irigaray auriztarrarekin ezkondu zen eta bost seme izan zituzten, Aingeru, zarrena eta euskal kulturari garrantzi handia izan duena, Beran jaio zen, eta gainerako beste lauak Iruritan.

Hona hemen Latxagak (1973: 179) Larrekori buruz ematen digun erretratoa:

Gizon bezela, oso ona ta ziñezkoa zala estaen dute, kristaua egizkoa gaiñera. Sendagille bezela egindako lanegatik Nafarroak zorra aundiak ditu berari oradindu bearrak. Gaxotegi berria gizon

onen bidez egin zan eta ango zuzendaria izana da. Ebakunzlari edo zirujano bezela lana egiten zuan eta esan dezakegu Naparra osoa bere eskuetan igaro dala. Bere gaxoakez dute aztu; oraindik gutxiago beartsuak. Bere seme-alabak ba'kira bezela artzen zituan. Bere lanbidean oso argia omen zan. Gainera, nola ez?, euskalzale sutsua genuen ta idazle benetakoa.

Beraz, euskal senaren, abertzaletasunaren eta euskararen alde lan handia egin zuen Larrekok. Sabino Arana Goiriren ideologiaren jarraitzaile, eta Larreak (1995: 217) esaten duenez: "Hasmentako interes hura, euskara eriekin marruskatzeko behar baitzuen, barrenago, atxekiago gertatu zitzaion Sabin Aranaren erakarpenei esker."

Bestaldetik, Larrekoren izaera eta jarrerak ezagutzeko bailiogarriak dira Caminoren hitzak (1992: IX):

Ideologiari dagokionez integrista genuen, kontserbadorea: tradizioaren, ordenuaren, moralaren eta erlijioaren defendatzaile tinkoa, ideia berri guztiak aise onesten ez dituzten horietakoa. Gizon gisakoa, diotenez oso begi onez ikusia, mediku gisa anintz jende beharduni mesede franko egina. Gerra denboran, aurretik abertzale gisa nabarmenduagatik batek baino gehiagok atzeman nahi izan zuen, baina ordurako adineko izateaz gainera, Iruñeko apezpikuaren mediku eta adiskide izateak lagundu zuen, aurretik irabazia zuen ospea ere gogoan hartzekoa dela.

Euskarari buruzko lanei esker ospe handia hartu zuen mediku auriztarrak. 1919.an Euskaltzaindiaren urgazle izendatua zen, eta 1933an Iruñeko *Euskararen Adiskideak* erakundeko arduraduna.

Larreko EAJ-PNVko alderdikidea izan zen hasieran, eta honela, Iruñeko *Napartarra* eta *Amayur* (18) aldizkari abertzaleetan argitaratu zituen hainbat lan.

Beraz, aipatutakoari jarraituz, Larrekoren garrantzia XX. mende hasierako euskal kazetaritzaren historian nabarmena da. Baditu argitalpenak hainbat aldizkaritan, beste hainbeste: *Argia*, *Euskal Esnalea*, *Euzkadi*, *Euzko-Deya*, *Gure Herria*, *Herria*, *La Voz de Navarra*, *Zeruko Argia*, *Napartarra*. Hala eta guztiz, Larrekoren ekarpenik interesgarrienak *Euskalduna* astekarian bilduta daude.

Beraz, Larrekoren papera euskal kulturaren euskal batasunaren aldekoa da, eta, honela, *Eskualtzaleen Biltzarra* eta *Euskal Idaz-*

(18) Nafarroan *Amayur* (*Semanario Nacionalista Vasco*) eta *Napartarra* aldizkariekin hasi zen prentsa jeltzalea argitaratzen, hain zuzen ere, *Amayur* 1931-5-23an hasi zen kaleratzen. Aldizkari kultural-politiko gisa defini dezakegu, EAJren bozeraemate ofiziala azken batean. Euskarari dagokionez, aipatu beharrekoa da 1925ean sortutako *Euskararen Adiskideak* elkarte, Larreko erakunde honen zuzendaria izanik. *Napartarra*, eta *Amayur* (haren jarraitzailea), aldizkarian euskararen kontzeptu eta irizpidea sabindarrenak dira. Bestaldetik, esan beharrekoa da prentsa jeltzaleak bazituela lurralde bakoitzaren bozeramaleak: *Euzkadi* (Bizkaian) eta *Arabarra* (Arabian).

Horretaz aparte, esan genezake garrantzi sozial eta politikoak zituztela garai hartan, Nafarroa eta Araba euskara gehien galsu zuten lurraldeak baitziren (ik. Diaz Noci, 1999: XVII atala).

leen Elkargoan erakundeetan parte hartzegatik ezaguna zen bere garaian.

Espainako Gerra amaitu eta hamar urteren buruan hil zen Iruñean 80 urteko adinean 1949ko irailaren 3an, erialdi labur baten ondoan.

a.2) Euskal lanak

Larrekoen garrantzia mende hasierako euskal kazetaritzan nabarmena da. Caminok esan duenez (1992: IX-X):

Mende hasierako euskal kazetaritzan daukan garrantzia ezin ukatu da: idatzitakoak kopuru handia egiten duelako eta bere lantxoak aldizkari askotara zabaldu zituelako batetik. Besterik, zerabilen idazteko tankeran, askoren gogoko den bizitasuna nabarmena delako. Horretaz gain, haren idazkietan garai hartako lekukotasun baliagarri ugari dago.

Larrekoen obraren bilduma asko ditugu (19). Idazle eta mediku auriztarrak kultura eta idazlan politiko eta sozialak aztertu zituen bere idazlanetan. XX. mendeko bigarren erdialderako *Napartarra* eta *Es-kualduna* aldizkarietan argitaratu zituen auriztarrak bere ekarpenak. Baionako astekaria da Larrekoen lanik gehiena biltzen duena, baina bestelako argitalpenetan agertzen zaizkigu autore nafartarraren lanak. Beste hainbeste, *Argia*, *Amayur*, *Euskalegunetako Itzaldiaz*, *Euskal Es-nalea*, *Euzkadi*, *Euzko-Deya*, *Gure Herria*, *La Voz de Navarra*, *Zeruko Argia*, *Herria*, etab.

Gaztelaniaz eta euskaraz idatzi zuen Larrekok. Beste hainbeste, ezaguna da haren semeak, Aingeru Irigarai, osoturiko bilduma. Hona hemen bilduma honek osatzen ditu izenburuak: “Euskaldun bioztuna Mexikon”, “Azkena”, “Nafarroako euskal esakerak”, “Orreagan”, “Eskuara eta toki izenak”, “Apendizitis”, “Edariko”, “Erronkariko uskaraz”, “Sendalari baten argiak”(20). Erdaraz ere idatzi zuen Iruñeko *La Avalanchan*, edo *El Eco de Navarran*.

Hiru liburu idatzi zituen erdaraz: *Topografía médica del valle de Baztán* (1905), aipaturiko *Guía médica del asistente a moribundos* (Iruña, 1945), eta *Guía médica del intérprete de milagros y favores* (Madril, 1949), Gregorio Marañoen hitzaurrearekin. Euskaraz liburu bat besterik ez zuen argitaratu: *Naparrako Erranerak*.

Gai medikuez hitz egiten dugunean hainbat artikulua aurkezten ditugu, *Lekukotasuna* bilduman datozenak. Izenburu “Osasunaz” (207-237) dugu. Aukeratu dugun lehen testua “Osasungarriak” (209-210), sabel

(19) Ikus Iñaki Caminoren aipatutako edizioak: *Nafarroatik* eta *Lekukotasuna* (Donostia, 1992), eta, batez ere, Aingeru Irigarayk zuzendutako bilduma: *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca*. Bilduma honetan Manezaundi eta Larrekoen lanak datoz. Azkenik, *Gerla urte, gezur urte, isiltasunean mintzo*, bere iloba Jose Angel Irigarai koordinatutako edizioa. Bilduma honetan lan batzuk aurkezten dira, eta Larrekok Guda zibilaren ondorio sozialak aztertzen dizkigu.

(20) Idazki hau lan honetako eranskinean dago. Ekarpen hau erdaraz idatzi zuen *Guía médica del asistente a moribundos* (Iruña, 1905) liburuaren laburpena euskaraz.

eta gripearen zerikusia duten gaitzak aipatzen dizkigu mediku auriztar-
 rrak. Bigarren artikuluan “Oraiko gaitz-berri untarik” (211-213) Larre-
 kok berriz hitz egin du prozesu gripalaz. Hirugarrenean, “Jende tarteko
 osasungarriak” (215-217), esnealdiari buruz hitz egiten da. Laugarren
 ekarpenean, “Apendizitis eta urdail zulatzea” (219-221), izenburuan
 argitzen den gaitzaz komentatzen du mediku eta idazle auriztarrek.
 Bostgarren lanean, “Edarikoia” (223-226), Larrekok alkoholismoaren
 ondorioak eta tratamendu terapeutikoak jakinerazi dizkio irakurleari.
 Azken testuan, “Sendalari baten argiak” (227-237) gaitz larriak edo
 azkenekoak izeneko gaixotasunak aipatzen dira. Honela, Larrekok,
 bere formazio mediku eta katolikoarengatik, mota honetako gaixoek
 aurkertzen dituzten sintomez hitz egiten du. Beraz, atal honek, Me-
 dikuntzaren euskarazko terminologiaren ikuspuntutik hartuta, garrantzi
 handia du. Bestetik, Larrekok, mediku humanista, jakinerazi nahi du,
 metodo didaktiko bat erabiliz, gaixoaren jarrera eta izakera ezagutzearen
 garrantzia. Ondorioz, medikua laguntzaile espirituala bezala kontsidera
 daiteke.

b) AINGERU IRIGARAY

b.1) Bizi zehaztasunak

Nafarroako Bidasoako Beran jaio zen, Alzateko auzoan 1899an. Aita
 ezaguna zuen idazle eta euskalzale beratar honek, Larreko izengoitiak
 ezagutua. Ama ere auriztarra zuen, Felisa Irigarai Apat.

Irigaraitarrek Baztango Iruritarra jo zuten, aita Fermin bertako senda-
 gilea izendatzearekin. Lehenbiziko eskolak Iruritako eskolan ematen
 zituen; gero Lekarozko ikastetxean. 1915ean aita Iruñeko Hospital de
 Navarra eritegian ebakuntza postu bat irabazi zuen eta familia Iruñera
 joan zen. Aingeru Irigaray, Lekarozko ikasketak amaitu ondoren, Zara-
 gozara abiatu zen medikuntza ikastera, gero Bartzelonan amaitu zituen
 Medikuntza mailako ikasketak.

Bilboko Basurtuko Ospitalean eman zituen bi urte (1922-23). Bertako
 adiskideen artean euskalzale eta mediku handiak zituen: Belaustegi-
 goitia, Garate, Viar eta Usandizaga, besteak beste. Denbora labur batez,
 Arratiako Diman zegoen mediku lana egiten. Gero Iruñera bueltatu zen
 Udaletxeko Casa de Socorro delakoan. Geroztik, Donostian kokatzen
 da eta han hil zen 1983an.

b.2) Euskaltzale

Euskal kulturaren munduan izen garrantzitsua du Aingeru Irigaraik,
 ikasketak bukatu eta lanean hastearekin batera, indarrean ekin baitzion
 euskararen aldeko lanari eta idazteari. Haren garrantzia aztertu baino
 lehen esan beharrekoa da XX. mendearen hirugarren hamarkadan koka-
 tua dagoela Aingeru Irigarairen lana. Beraz, haren lehen urratsak elkar-
 te euskaltzale eraginkor batean hasi zen ematen, Iruñeko *Euskeraren*
Adiskideak izena duen erakundearen (1925etik). Elkarte honek bazituen
 beste izen ospetsuak: Larreko (Aingeruren aita), Manezaundi, Agerre,
 eta beste. Aipatzekoak dira Nafarroako hainbat herritan antolatu zituzten

euskal jaiak eta euskararekin lotuta zeunden ekintzak, beste hainbeste, herri eta literatur euskararekin zerikusia zutenak.

Esandakoaren arabera, Aingeru Irigarayk ezagutzen zituen urte haietako euskal kulturaren eragile ospetsuenak: hauen artean, Arturo Kanpion, Azkue eta Julio Urkixo.

Honetaz aparte, 1929an sartu zen Euskaltzaindian. Haren aita, Larreko, hamar urte lehenagotik ari zen, besteak beste, Nikolas Ormaetxearekin batera. 1941ean euskaltzain oso izendatua izan zen, Olabide euskalzaina hil zenean (Onaindia, 1977: 389). Mitxelena eta Arrue euskaltzainekin batera *Eusker*a aldizkaria sortu zuten. Honekin batera, beste euskal erakunde batean aritu zen, Eusko Ikaskuntzan (1918an sortutakoa). 1924an Iruñeko *Euskararen Adiskideak* elkartearen batzordean zegoen. 1933an Eusko Ikaskuntzaren batzorde iraunkorreko kide izendatu zuten Lizardik utzitako tokia betetzeko. Garai hartan, Alemaniako Den Haag hirian ospatzen ziren filologiari buruzko biltzarretara joan zen.

Gerra ondoko urte zailetan, euskal kulturaren bideetan jarraitzen zuen Aingeru Irigarayk. Euskaltzaindiaren eginkizunetan parte hartzen zuen. Haren euskalzaletasuna mantenduz, *Egan* aldizkariak sortu zuen *Naas - Maas* izeneko saila zuzendu zuen (1951ean). Halaber, Gipuzkoako Julio de Urkijo Mintegian kide izendatu zuten 1954an, eta, indarraz parte hartzen zuen Mintegi honen ekintzetan. Azpimarratu beharrekoa da, Mintegi hura ikerlari, hizkuntzalari eta historialarien topalekua bihurtu zela: Lakarra, Bouda, Mitxelena, eta beste.

Bestetik, garai honetan Iruñetik deitu zioten Nafarroako Diputazio-ko *Principe de Viana* kultur erakundeak sortutako Euskararen aldeko Saitetik. Sail hau beste mediku batek zuzentzen zuen, Pedro Diez de Ultzurrun. Hainbat ekitaldi antolatu zituzten Irigarayk eta haren laguntzaileak: euskal jaiak, sariketak, bertsolari txapelketak eta beste. Era berean, euskarazko aldizkari bat plazaratu zuten, *Principe de Viana* izenburukoa, eta Iruñeko *Diario de Navarra* egunkarian *Nafar Izkuntzaren Orria* sortu zuten baita ere. Garai hartan beste bi aldizkari atera zituen Diputazioak, ezinbestekoak Nafarroako hizkuntzalaritzaren historian: *Fontes Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía*.

b.3) Euskal lanak

“Lakoizketa apez jauna eta euskera”, 1926, (Euskal egunetako Hitzaldiak, Bermeo).

“Notas al nuevo mapa del País Vasco”, 1926, RIEV.

“Traducción al vascuence de un Capítulo de *El Quijote*”, 1928, RIEV, XIX; 1947, BAP.

Urte hartan Iruñeko Udalak liburuaren kapitulu baten itzulpena, IX kapitulua, bizkaitar lerdan eta mantxatar kementsuaren arteko borroka azaltzen duena. Iruñeko Udalak antolatutako sariketan aurkeztua eta saritua.

“Ohienart, poeta”, 1928, RIEV, XIX.

“Un acta de ayuntamiento en lengua vasca”, 1932, RIEV, XXIII.

“Cantares de Navidad, Año Nuevo”, 1933, *Anuario de Eusko Folklore*, XIII.

“Euskaldun antzertia”, 1933, *Gure Herria*, XIII.

“Una poesia de Chamisso sobre Etchahun”, 1933, RIEV.

“Euskaltzaindiaren laguntzaleak”, 1933, EIU, XV.

“Documentos para la geografía lingüística de Navarra”, 1935, RIEV, XXVI.

“El euskera en Artajona”, 1934, *Yakintza*, II.

“Euskal liburu zaarretako zenbait yakingarri”, 1936, *Yakintza*, IV.

“Primitiae linguae vasconum”, 1947, Salamankako Unibertsitatea.

Hugo Schuhardtek eskainitako jatorrizko liburuaren gaztelerazko itzulpena.

“XVII garren mendeko iru eskutitz”, 1955, EGAN, VIII, 1-2.

“Naas-Maas”, 1956, Egan, IX, hamar artikulua idatzi zituen, Apat-Etxebarne izengoitia erabiliz, amaren aldeko deiturak zirenak.

“Antropónimos medievales de Navarra”, 1955, *Príncipe de Viana*, Iruñea.

“Euskal literaturaren bilduma laburra”, 1956, *Egan*, 1, 12. zenbakian hasita zazpi lan argitaratu zituen.

“Euskalerriko Ipuinak”, 1957, Zarautz, Itxaropena, 232 orrialde. Kuliska sortaren barruan argitaratua, 17. zenbakia.

“XX garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak”. “Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca”, 1958. Enrike Zubiri, Manezandi, eta Pablo Fermín Irigarainen, Larreko, idazleen lanak. Nafarroako Diputazioko *Príncipe de Viana* erakundeko Euskararen aldeko Sailak argitaratua.

“Lizarrar Elkano’koa”, 1959, *Euskera*, IV.

“Mogel eta Literatur-euskera”, 1959, *Egan*, XII.

“Onomástica medieval de Navarra”, 1960, *Príncipe de Viana*.

“La lengua vasca en los siglos XVI al XIX”, “Geografía histórica de la lengua vasca” liburuan dator, askoren artean egindako lana. Auñamendi bilduma, 13. Zenbakia.

“Nota sobre la antigua lengua”, 1961, *Príncipe de Viana*.

“Poesías populares vascas”, 1962, Donostia. Michelen “Le Pays Basque” liburuaren XX. kapituluaren euskaraz itzulua. Auñamendi bilduman.

“¿Se trata de la doctrina de Sancho de Elso?”, 1963, *Príncipe de Viana*.

“La obra del Príncipe Bonaparte”, 1966, BAP, Donostia.

“Nuevos documentos para el estudio del vascuence alto medieval”, 1966, *Príncipe de Viana*.

“Noticias y viejos textos de la *Lingua Navarrorum*”, 1971, Donostia. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Julio Caro Barojak egindako hitzaurrea. Lau atal ditu: 1) Euskal testu zaharrak; 2) Gure garaiko kimua; 3) Haur jolas eta ipuinak; eta 4) Elebitasuna (Onaindia, 1977: 392).

“Una geografía diacrónica del euskara en Navarra”, 1974, Iruñea. *Diario de Navarra*, 10. Zenbakia. Ediciones y textos argitaletxeak emana.

Beraz, eta zerrenda honek erakusten duenaren arabera, gazterik ekin zion idazteari, eta aitz artikulua idatzi zituen hainbat aldizkari eta ar-

gitalpenetan, bai gerra aintzinetik eta ondotik, eta baita gai askoren gainean.

Gaien aldetik denetarik dugu: euskal idazleak eta hauek argitaratutako lanak, liburuaren gaineko iruzkinak, literatur hizkera, euskal antzerkia, euskararen ortografia, herri-kantak, hizkuntzaren lekukotasun historikoak, ohitura zaharrak, onomastikaren gaineko kontuak eta beste (Diez de Ultzurrun, 1999: 13) (21).

c) JOSE ANGEL IRIGARAI

c.1) Bizi-zehaztasunak

Jose Angel Irigarai (Iruñea, 1942) tradizio euskaltzale handiko familian sortua da. Aitona, Pablo Fermín Irigarai “Larreko” idazle ospetsua izan baitzen, eta aita Aingeru Irigarai, euskaragintzan ekin zion pertsonai ezagutua. Beraz, familiaren literatur zaletasunean bazkatua da. Medikuntza izan du ogibide, haren familiaren beste tradizio bati jarraituz, euskalgintzari osoro ekin zion arren. Orain, Bilboko Kafe Antzokia kulturgunearen zuzendaria da.

c.2) Euskal lana

Irigarai 1960 urtearen hamarkadan hasi zen idazten, beraz, goiz hasi zen kultur ekintzei lotzen: *Umeen Deia* aldizkarian, Aranzadi zientzia elkartearen Eusko Ikaskuntzan, *Zeruko Argia*, *Príncipe de Viana*, *Egan*, *Munibe*, eta beste.

Zenbait sari irabazi ditu: Iruñeko CAM-eko Premios Centenarios delakoan, saiakeran (*Euskeria eta Nafarroa*, 1973, lanarekin) (22); Hondarribiko Euskal Jokoen Lorea, olerkian; Irungo Hiri Saria, olerkian; Iruñeko Xalbador saria, olerkian.

Euskara eta nafartasuna hitzek laburbiltzen dute Jose Angel Irigaraiaren obra, batez ere, euskal olerkigintzan badugu izen garrantzitsua Irigaraitar honen lana aipatzerakoan. Hiru bilduma nagusiak argitaratu ditu: *Kondairaren ihauteria*, 1978, Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa; *Bizi minaren olerkian*, 1986, Pamiela; eta *Urdinkara*, 1995, Pamiela.

Hala, haren obra poetikoaren ezaugarri nagusiak poeta nafarren lanetan agertzen direla esan genezake (Izagirre, 2001), Gorka Trintxerperena eta Iñaki Zabaletaren lanetan batez ere. Eremu geografiko berezi honetan erreferentzi zehatzek baditu Irigaraiaren lana: Erronkari, Baztan eta Aiezkoa. Haren lanak funtzio bat betetzen du, euskararen galera gogoratzen digu, eta Nafarroko historiaren elementuak sartzen ditu haren poemetan: mitologikoak (Ortzi, Mari), folklorikoak (Miel-Otxin, ur goienaren erritua) eta gertakari eta pertsonai historikoak (Amaiur, Gaxeneko Inesa).

(21) Aingeru Irigaraiaren bibliografia osoa haren semeak José Angel Irigarai argitaratu du (1985: 31-42). Bere semeak eskainitako atalean ikus daitezke Aingeru Irigaraiaren lanaren zehaztasunak. Horrexegatik, autoreak ez ditu orrialde zehatzak aipatu.

(22) Saiakera hau euskara eta Nafarroaren arteko loturak kontatzen dizkigu Jose Angel Irigarai, izan ere, ikuspuntu historiko batetik eta garai hartako euskararen egoera Nafarroan.

Beraz, Irigarairen poemak euskaldunen izatearen oroitzak dira, Izagirrearen hitzetan (2001): “Horixe da Nafartasuna, arrangura existentzial-kolektibo bat, gure itolarri historikoa, erresuma baten hondamendian eta erresistentzian islatua”. Irigarairen izaera poetikoa intimista da, baina ez da sentimendu pertsonalak alboratzen dituzte-netarik.

Bestaldetik, prosari ekin dio baita ere, eta, hala, ipuin bilduma bat argitaratu du: *Gauerdiko ele galduak*, 1986 urtean. Gaiei dagokionez, eta Irigaraik berak dioskunez (1986, aintzin solasa): “... batzuren kon-daira funtsean gertatua, ..., Iruñaldeko erranairu zaharra; dohakabeari, alegia, makur guztiak gertatu ohi zaizkiola adierazten duena, ...”

Baina, gehien ekin dion arloari musikagintza izan da. Zentzu honetan, *Ez dok amairu* mugimendu eta sentikariaren sortzaileetarikoa izan zen. Jose Angel eta Juan Migel Irigarai, Artze anaiak (Jexux eta Joxean), Benito Lertxundi, Xabier Lete, Mikel Laboa, Kepa Arbizu, Jose Mari Zabala, Jean Paul Arregi eta besteek 1965rako sortu zuten talde hau. Talde abangoardista honen helburuak kantu zaharrak berreskuratzea eta jendeari ezagutaraztea izan ziren. Esan liteke kantu berriak sortzea ere izan dela mugimendu honen helburuetariko bat, euskal tradizioan oinarrituta, eta azkenik, ezagutzen ez ziren euskal jatorrizko musika tresnak agertzea.

Talde honen izena Oteizak proposatu zuen, Azkuek Bizkaian jasotako herri ipuin batetik hartua, hamahiruren zentzu okerra apurtu eta pizkundek aurrera joko zuela adierazteko.

Hala, Jose Angel Irigaraik buru belarri parte hartu zuen mugimendu musikal honetan, haren zentzu poetikoa landuz, eta berak egindako kantu batzuk plazaratu dira, batez ere, Benito Lertxundi eta Anje Duhalderen diskografian.

Euskal literatura hitzak beste esananahi bat du, hau da, euskararekin lotura izan eta euskeraz idatzi dutenak aipatu behar dira lan honetan. Beraz, eta irizpide kronologiko bat erreferentzizat hartuz, XIX. mendearen zehar izen batzuk baditugu. Beste hainbeste, **Martin Larralde**, Donibane Lohitzuneko medikua eta Urruñako alkatea 1863 urtean, olerkari handia (Onaindia, 1973: 172). Urruñan ospatzen ziren Euskal jaietako antolatzailea, Abbadie eta Hiribarrenekin batera. Olerki batzuk egin zituen: *Herrico Festa* (1856), *Eskualduna* (1858), *Ama* (lehen saria 1859), *Xori ohatzea* (1860), eta beste. 1864tik 1876era Saran ospatu ziren Euskal jaietan agertzen zaigu, eta lan bat utzi digu, *Mutil zaharra* (1864). Satira honetan emakumeen hezkuntzari buruz hitz egiten du Larralde medikuak (Manterola, 1878: 35). Lapurteraz idatzita. Honekin batera, Donibane Lohitzunen mediku lanak egiten zituen beste izen bat aipatu behar dugu, **Martin Guilbeau**, (1839, Urruña). Bourdeaux eta Parisen burutu zituen mediku ikasketak. Larralde bezala, Donibane Lohitzuneko alkatea. Manterolak (1878: 172-180) aipatzen du honek egindako olerki bat, *Laboriaren dohatsutassuna*. Birgiliok hasitako genero bukolikoaren jarraitzaile bat dugu (Sarrionandia, 2001: 210). Sari batzuk irabazi

4.- EUSKARA-GINTZAN ARITUTAKO ZENBAIT MEDIKU

zituen: *Eskaldun desterratua* (Urruñan, 1859) eta *Sor-Herriaren orhoitzapena* (Saran, 1872). Iparraldeko beste mediku poeta ospetsu bat du, **David** Doktorea, Ezpeletan jaioa eta bertako medikua. Bi olerki aipa daitezke: *Eskaldunak* eta *Mutil zaharrari* (Onaindia, 1973: 177). Talde hau osatzerakoan, ezin dugu ahaztu **Dithurbide**, Sarako medikua. Euskarazko lan bat idatzi zuen: *Ichtorio Saindua* (1882). Frantsezetik itzulia dago, galdera eta erantzunekin. Sarako alkatea zen baita ere.

XX. mendean medikuez beterik zegoen beste talde bat aipatzea ezinbestekoa da. Hala, **Juan Bautista Arrospide**, Muxikako medikua. Busturian jaioa 1869an, eta Muxikan hila 1952an. Euskal gai anintzez idatzi zituen Arrospidek, batez ere, bertsolariekin lotura handia zuen, beste hainbeste, Kepa Enbeitarekin, Muxikako koplalari eta bertsolari ospetsuarekin. Gipuzkoan beste mediku idazle du, **Daniel Lizarralde**, tolosarra (1853an jaioa). Euskaltzale sutsua, eta Argentinako *Laurak-Bat* aldizkariaren zuzendari eta sustatzailea. Oñatin beste mediku poeta batek merezi du aipamen bat, **Frantzisko Apaolaza**. Bertsolari, naturari buruz idatzi zuen. Lan eder bat utzi zigun, *Euskal-Erriari* (Onaindia, 1974: 276). Atarratzeko mediku bat ezaguna zen garai honetan, **Albert Konstantin**, Izpuran (Zuberoan) jaioa 1873an, eta Atarratzeko medikua. Lan batzuk argitaratu zituen Baionako *Gure Herria* aldizkarian. **Manuel Zelaia** (1889-1971), Azpeitiko medikua, bi itzulpen utzi dizkigu: *Apocalipsis* (Donostia, 1964) eta argitaragabe dagoen Pio Barojaren *La Dama de Urtubi*. Azpeitin badugu beste euskaltzale bat, **Inazio Artetxe** (1892-1948). Harek egindako hitzaldi batzuk argitaratuak daude: *Gure Gaitzak* (1923) eta *Sendakintza gizaldiyetan zehar* (1928) (Onaindia, 1975: 243). Baditugu beste izen batzuk euskaragintzan aritu zirenak, **Jean Jauregiberri** (1880-1952), Alosako medikua (Zuberoan); **Jose Indalezio Zinkunegi** (1886-1964), Zarautzgo medikua eta itzultzaile handia (*Irizpidea*, Donostian argitaratua 1914an, Balmesen *El Criterio* liburuaren itzulpen ederra; *Erraondoko azkenengo atabalaria: Popatxo*, Kanpionen lanak euskaratuak; *Zigor* opera (Bilbo, 1957), eta beste); **Teodoro Hernandorena**, Zizurkildarra (1898), haginlari eta bertsolari. *Zeruko Argia*, *Herria*, *Principe de Viana* eta *Anaitasuna* aldizkarietan argitaratu zituen haren lanak; **Erroman Irigoien**, Oiartzungo medikua, koplaria; eta **Kristope Dufau** (1888-1922), Senperekoa, musikalaria.

Atal hau betetzeko ezinezkoa da hiru mediku euskaltzaleen aipamen bat egitea: **Pierre Broussain**, Hazparneko medikua (1859-1951); **Pedro Diez de Ultzurrun** nafartarra (1924-1994) eta **Justo Garate** bergarra (1900-1994).

Lehenak, Pierre Broussain Doktoreak, Euskaltzaindiaren sortzearekin zerikusia handia du. Euskaltzain sutsua, Arturo Kanpionekin batera euskararen batasunaren aldeko txosten bat idatzi zuen (1929): *Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera*. Idazki honetan ortografiaren arazoak hitz egiten dute bi euskaltzaleek. Honetaz aparte, Azkueren lankide garrantzitsua zen Broussain, eta honen ildotik, badugu Xarritonek paraatutako Azkue eta Broussain-en arteko gutun sorta bat:

Resurrección M^a Azkue eta Pierre Broussain -en arteko elkarridazketa (Xarriton, 1986) (23).

Bigarrena, Diez de Ultzurrun Doktorea, Iruñan jaio zen, eta gazterik ekin zion euskalgintzari. Nafarroako Diputazioaren Euskararen aldeko Saila antolatu zuen (1957an), euskararen gaiak sendotzen eta hainbat ekintza antolatzen. Haurren hezkuntza euskaraz bultzatu zuen baita ere Nafarroan, eta Nafarroako lehen bertsolarien txapelketak antolatu zituen. Esan beharrekoa da euskararen ofizialtasuna sustatu zuela, haren garaiko beste euskaltzaleekin batera, adibide bezala, Aita Villasante eta Koldo Mitxelena euskalariekin. Ikastolen aldeko mugimenduez aparte, *Principe de Viana* aldizkariaren *Euskal orria* sailaren sortu zuenetariko bat dugu Diez de Ultzurrun.

Hirugarrena, Garate Doktoreak, Bergaran jaioa, euskaltzale eta politikari sutsua, hainbat elkarte eta aldizkaritan hartu zuen parte. Filologo handia, toponimia eta abertzaletasunean aditua. Haren lana (24) merezimendu asko jaso ditu, beste hainbeste, EHUko Honoris Causa Doktorea (1982an).

ALTZIBAR, X., 1990, "Peru Abarcaren kopiak eta lehen edizioa", ASJU, 871-887 or.

ALTZIBAR, X., 1992, *Bizkaierazko Idazle Klasikoak*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

ARESTI, G., 1973, "Peru Abarka-ren alienazioa", *Anaitasuna*, 10 or..

AULESTIA, G., 1996, *Euskal idazleak*, Sancho el Sabio Koadernoak, Gasteiz.

BARRIOLA, I., 1985, "Nueva lectura de Peru Abarka", *Cuadernos de Historia de la Medicina Vasca*, III, 19-36 or.

BROUSSAIN, P. ETA ARTURO KANPION, 1920, *Informe de los señores académicos A. Campión y Pierre Broussain a la Academia de la Lengua Vasca*, Imp. del Ave María, Bilbao.

CAMINO, I., 1992, *Lekukotasuna*, Pamiela, Donostia.

CAMINO, I., 1992, *Nafarroatik*, Pamiela, Donostia.

DARANATZ, J.B., 1908, "Un vétérinaire basque du XVII siècle. Mongongo Dassança chimista", *RIEV*, 2, 55-600 or.

DASSANÇA, M., 1908, "Laboriaren abissua", *RIEV*, V.

DIAZ NOCI, J., 1999, *Euskal kazetaritzaren historia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

DIEZ DE ULTZURRUN SAGALÁ, E., 1999, *Angel Irigaray*, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

5.- BIBLIOGRAFIA

(23) Ik. Xarriton, P, 1985. *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques*, Centre Régional de Publication de Bordeaux, Paris.

(24) Garate Doktorearen bibliografi eta bizitzaren ikerketa oso bat ezagutzeko ikus Sarrionandia, B. 1999. *El Dr. Justo Gárate y Arriola: Médico y filólogo. Su contribución a la Vascológia*. EHU. Doktorego Tesia. MS, eta Sarrionandia, B, 2001, "Justo Garate eta Arriola Doktorearen biografia". EGAN, Donostia, 5-17.

- DIEZ EZKERRA, M., 1982, "Peru Abarca como acto comunicativo", *Euskera*, 21, I, 13-57 or.
- ETCHEPARE, J., 1980, *Buruxkak*, Elkar, Donostia.
- GARATE, J., 1936, *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*, Junta de Cultura Vasca, Bilbao.
- IRIGARAI J. A., 1973, *Euskera eta Nafarroa*, Aranzadi, Iruñea.
- IRIGARAI, J. A., 1986, *Bizi minaren olerkian*, Pamiela, Iruñea.
- IRIGARAI, J.A., 1986, *Gauerdiko ele galduak*, Elkar, Donostia.
- IRIGARAY, A., 1958, *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca*, Pamplona.
- IRIGARAY, A., 1959, "Mogel eta literatur-euskara". *EGAN*, 130-138 or.
- IRIGARAY, J.A., 1985, *Homenaje a Aingeru Irigaray*, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 19-42 or.
- IZAGIRRE, K. (koord.), 2001, *XX. mendeko poesia kaierak. José Angel Irigaray*, Susa, Donostia.
- JUARISTI, J., 1987, *Literatura vasca*, Taurus, Madrid.
- KINTANA, X., 1972, *Joanes Etxeberri Sarakoaren Lan Hautatuak*, Lur, Donostia.
- KORTAZAR, J., 1982, "Mogel eta bere garaia", *ASJU*, 16, 47-53 or.
- KORTAZAR, J., 1990, *Literatura vasca: siglo XX*, Etor, San Sebastián.
- KORTAZAR, J., 1997, *Euskal literaturaren historia txikia: ahozkoa eta klasikoa*. Erein, Donostia.
- LABAYEN, A.M^a., 1949, "Joannes de Etcheberri". *Eusko Jakintza*, 3, 99-104 or.
- LAFITTE, P., 1932, "Notre maitre: M. le Dr. Etchepare", *Gure Herria*, 259-266 or.
- LAFITTE, P., 1990, *Euskal Literaturaz*, Erein, Donostia.
- LARREA, J.M^a. eta P. M^a Diez de Ultzurrun, 1985, *Nafarroako euskal idazleak, I*. Iruñea.
- LARREA, J.M^a., 1995, *Nafarroako euskal idazleak*, Pamiela, Iruñea.
- LATXAGA (San Sebastian, J. M^a.), 1973, *Nafarroako euskal arrobia*, Pamiela, Iruñea.
- MITXELENA, L., 1960, *Historia de la Literatura Vasca*, Minotauro, Madrid.
- MITXELENA, L., 1978-79, "El texto de Peru Abarca", *ASJU*, XII-XIII, 203-224 or.
- MOGEL, J.A., 1970, *Peru Abarca*, Juan San Martinek prestatutako edizioa, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- MUJIKÁ, L.M., 1979, *Historia de la Literatura Euskérica*, L. Haranburu, San Sebastián.
- ONAINDIA, S., 1972-75, *Historia de la Literatura Vasca, I, II, III, IV*, Etor, Bilbo.
- ORIXE (Ormaetxea, N.), 1927, "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra", *Euskal Esnalea*, 232 or.
- SAN MARTIN, J., 1960, "Mogel: bere bizitza eta lanak", *Euskera*, V, 26-61 or.

SAN MARTIN, J., 1989, *Juan Antonio Moguel eta Urkitza. Bere bizitza eta lanak*, Zarauz.

SÁNCHEZ GRANJEL, L., 1983, *Historia de la Medicina Vasca*, Instituto de Historia de la Medicina de Salamanca eta Euskal Medikuntzaren Historiaren Mintegia, Salamanka.

SARASOLA, I., 1971, *Euskal Literaturaren Historia*, Lur, Donostia.

SARASOLA, I., 1976, *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madrid.

SARRIONANDIA, B., 1999, *El Dr. Justo Garate y Arriola. Médico y filólogo. Su aportación a la Vasculogía*, EHU, Doktorego Tesia, MS.

SARRIONANDIA, B., 2001, "Literatura vasca y medicina en euskera". BRSVAP, LVI 197-221 or.

URKIA, J. M^a, 1993, *Diccionario histórico de médicos vascos*, Euskal Medikuntzaren Historiaren Mintegia/E.H.U, Bilbao.

URKIXO, J., 1907, *Obras vascongadas del Doctor labortano*, La Gran Enciclopedia Vasca, Paris.

URKIZU, P. et al., 2000, *Historia de la literatura vasca*, UNED, Madrid.

URKIZU, P., 1999, "Monjongo Dassançaren Laboriaren abissua eta honen bi aldaera ezezagun: Jean Pierre Chabalgoityk idatzia (XVIII. m.) eta Bertrand Goyenetcheren Marichalen liburua (1831). Aurkezpena, edizioa, oharrak eta hiztegia", ASJU, XXXIII, 1, 239-304 or.

VILLASANTE, L., 1953, "Joanes Etxeberri", BRSVAP, 2 Koaderno, 231-243 or.

VILLASANTE, L., 1961, *Historia de la Literatura Vasca*, Sendo, Bilbao.

VINSON, J., 1969, "Las obras de Joannes d'Etcheberry y la crítica", RIEV, I, 37-41 or.

XARRITTON, P., 1984-1992, *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak*, I, II, III, IV, V, Elkar, Donostia.

XARRITTON, P., 1986, *Resurreccion M^a Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa*, Iker/Euskaltzaindia, Bilbo.

ESTUDIOS ALAVESSES

Isabel COFIÑO FERNÁNDEZ, El taller de Menagarai: la continuidad de la tradición clasicista durante el barroco en tierras alavesas (Pág. 129).

Fernando CROVETTO POSSE, La implantación del cinematógrafo entre los vitorianos II. (1905-1910) (Pág. 145).

El taller de Menagarai: la continuidad de la tradición clasicista durante el Barroco en tierras alavesas

ISABEL COFIÑO FERNÁNDEZ*

Durante la Edad Moderna el arzobispado de Burgos tuvo bajo su control a un gran número de territorios pertenecientes a diferentes provincias, entre los cuales se encontraban diversas parroquias alavesas. Parte de estas parroquias, en concreto las situadas en la margen izquierda del río Llanteno, formaron parte de las denominadas Montañas Bajas del arzobispado burgalés que, además de estas localidades, englobaban toda Cantabria (salvo Liébana y Campoo), las Encartaciones vizcaínas (a excepción de Gordejuela) y el valle de Mena. Para facilitar el gobierno de estas poblaciones el arzobispado de Burgos se dividió en arcedianatos, de modo que las Montañas Bajas estuvieron regidas por los arcedianatos de Treviño y Valpuesta que, a su vez, estuvieron conformados por diversos arciprestazgos. Uno de ellos fue el arciprestazgo de Tudela, bajo cuya tutela se hallaban numerosas parroquias del valle de Mena, así como otras pertenecientes a la provincia de Álava, parte de las cuales formaron parte de las citadas Montañas Bajas. Esta situación se mantuvo hasta 1851, año en que estas localidades alavesas pasaron a depender de la recién creada diócesis de Vitoria (1).

El territorio de las Montañas Bajas del arzobispado de Burgos experimentó a lo largo de la primera mitad del siglo XVIII una intensa labor constructiva en el ámbito de la arquitectura religiosa. Esta labor

(1) Sobre la organización del arzobispado burgalés pueden consultarse las siguientes obras: BARRÓN GARCÍA, Aurelio A.: *La pintura mural en Valdeolea y su entorno*. Santander, 1998, pp. 30, 31; CIJAD PÉREZ, Joaquín: *Historia de la Diócesis de Burgos*. Burgos, 1985, pp. 33, 34; GONZÁLEZ ECHEGARAY, Joaquín: "Estructura eclesiástica y niveles de poder en la Cantabria del siglo XVII", en *Población y sociedad en la España cantábrica durante el siglo XVII*. Santander, 1982, pp. 9-49; LÓPEZ MARTÍNEZ, Nicolás: "Aspectos de la vida eclesial en el Burgos moderno", en *Historia de Burgos. III. Edad Moderna. I*. Burgos, 1991, pp. 351-420; PORTILLA, Micaela Josefa: *Catálogo monumental de la Diócesis de Vitoria*. T. VI. Vitoria, 1988, pp. 1, 2; VITORIA, María Luisa de: *La villa de Noja en la Edad Moderna*. Noja, 1987, p. 63.

* Universidad de Cantabria